

**ZUZENBIDE FAKULTATEA**

**ZUZENBIDE GRADUA**

**2019-2020 IKASTURTEA**

**GRADU AMAIERAKO LANA:**

“Behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa eta haren alternatiben gabezia Espainiako ordenamendu juridikoan”

*Haizea Aranburu Ugartek egindako lana*

*Patxi Etxeberria Guridik zuzendua*

## AURKIBIDEA

I.	SARRERA.....	3
II.	BEHIN-BEHINEKO ESPETXEALDIAREN ERREGULAZIOA ESPAINIAR ORDENAMENDUAN.....	5
	A. Kontzeptua eta izaera juridikoa.....	5
	B. Nolako izan da behin-behineko espetxealdiaren bilakaera historikoa?.....	8
	C. Printzipio orokorrak.....	15
	D. Zein dira neurria hartzeko baldintzak eta helburuak?.....	20
III.	BEHIN-BEHINEKO ESPETXEAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA.....	24
	A. Espainiar ordenamendua: datu errealak.....	24
	B. Zuzenbide konparatua: behin-behineko espetxealdiaren aplikazioaren datuak.....	29
	1. Frantzia.....	30
	2. Italia.....	31
	3. Erresuma Batua: Ingalaterra eta Gales.....	32
	C. Aplikazioaren ondorioak.....	33
	1. Aske geratu direnengan duen eragina bergizarteratzerara begira.....	33
	2. Espetxealdi bidegabea: ondare erantzukizuna eta indemnizazio eskubidea.....	35
IV.	KAUTELA NEURRI ALTERNATIBOAK.....	38
	A. Ba al dago behin-behineko espetxealdiarekiko neurri alternatiborik Espainiako ordenamenduan?.....	38
	B. Neurri alternatiboak zuzenbide konparatuan.....	40
	1. Frantzia.....	40
	2. Italia.....	42
	3. Erresuma Batua: Ingalaterra eta Gales.....	43
	C. Zer dio Europak neurri alternatiboen inguruan?.....	44
	D. Kautela neurri alternatiboen inguruko epaiak Espainian exekutatzea.....	46
V.	ONDORIOAK.....	48
VI.	BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK.....	52

## I. SARRERA

Gaurkotasunik galtzen ez duen gaia da kautela prozesuarena, Zuzenbide modernoaren hastapenetatik gaur egun arte iritzi ezberdinak plazaratu baitira, bai ikuspuntu juridikotik (doktrina, jurisprudenzia) bai eta ikuspuntu sozialetik. Hori hala, lan honen bidez zigor prozesuaren berezitasunen artean, kautela neurriak nabarmenduko ditugu, eta zehazki, kautela neurrien artean legegileentzat tentsio eta buruhauste handienak eragin dituen neurria, alegia, behin-behineko espetxealdia.

Zigor prozesuan egoera jakin batzuetan baliatzeko tresna gisa definitu genitzake kautela neurriak. Kautela prozesuaren oinarri juridikoa Espainiar Konstituzioan dago, 117.artikuluari, eta hala ondorioztatzen dugu, botere betearazlearen eta botere deklaratiiboaren atzetik, babes judizial eraginkorraren hirugarren adierazpena dela.

Esan bezala, behin-behineko espetxealdia da kautela neurrietan nagusia, eta aldi berean gogorra. Askatasuna ordenamendu juridiko guztietan pertsona orori aitortzen zaion oinarrizko eskubidea da; horrenbestez, behin-behineko espetxealdiak askatasunaz gabetzea suposatzen duen heinean, legegileentzat ez da lan erraza izan zehaztea pertsona bat epaitu aurretik noraino izan daitekeen oinarrizko eskubide batez gabetua.

Eskuartean dugun lan honetan ikusiko dugunez, Europan eta nazioartean onartutako oinarrizko eskubide eta askatasunei buruzko itun eta legeak direla eta, aztergai dugun instituzio edo neurri prozesal honen erregulazioa denen ahotan dagoen gaia izatera pasa da, arestian aipatu dugun moduan, iritzi eta kritika juridiko zein sozialak nagusitu direlarik.

Gauzak hala, Zuzenbideko ikasle gisa zigor prozesua landu dudanez, interesgarria iruditu zait behin-behineko espetxealdiaren inguruko azterketa bat egitea, Espainiako ordenamendu juridikoan daukan tratamendua ardatz hartuta. Bildutako informazioaren inguruan hausnartu ostean, eta neurri batean, izaera kritiko batetik, Espainiako zigor prozesuan aztergai dugun tresna honetaz baliatzeko joera zenbaterainokoa den ikertzea izan da lan honen helburuetako bat.

Lanaren antolamendua nolakoa izan den azaldu aurretik, azpimarratu nahiko nuke datu objetiboetan oinarritu naizela, eta nahiz eta gaia aukeratu nuen unean behin-behineko espetxealdiaren inguruan iritzi erdi egituratu bat izan, lanaren amaieran atera ditudan ondorioei dagokion errealitatearen ikuspegia ematen saiatu naizela. Hori argituta, lana nola egituratu dudana aipatzea besterik ez da falta. Sarrera eta amaieran ateratako ondorioak albo batera utzita, hiru zatitan banatu dut lana.

Lehenik, gai honen inguruan hitz egiteko beharrezkoa dena aztertu nahi izan dut: zertan datza behin-behineko espetxealdia? haren izaera eta ezaugarri orokorrak landu ditut, eta ondoren aproposa iruditu zait izan duen bilakaera historikoaren errebaso txiki bat egitea. Neurria hartu ahal izateko baldintza eta helburuak landuz eman diot amaiera lehen atalari.

Bigarrenik, marko teorikoa une batez baztertuz, zigor prozesu espainiarrean behin-behineko espetxealdiak duen aplikazioaren datuak bildu ditut, estatistiken bidez analisi bat egin. Zenbaterainoko joera dagoen ikusteko, ezinbestekoa izan da beste ordenamendu juridiko batzuekin alderatzea, eta beraz, Frantziako, Italiako eta Erresuma Batuko datuak jaso ditut, ikuspegi orokor batetik errealitate objektiboa ezagutzeko.

Behin-behineko espetxealdiaren azterketaren ostean ondorio batzuk atera ditudanez, lanari hirugarren atal bat gehitu diot: kautela neurri alternatiboak. Behin-behineko espetxealdiaren erabilera murrizte aldera zigor prozesuan hartu daitezkeen beste neurri arinagoei buruz ere lanketa bat egin beharrean nengoen. Horregatik, Espainiako ordenamendutik hasita, sistema judizial ezberdinetan, zigor prozesuan epaileek dauzkaten irtenbideak lantzen aritu naiz. Azkenik, beste herrialdeetan egon daitezkeen neurri alternatiboak ikusita, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko 23/2014 legea hartu dut abiapuntutzat, Espainian neurri alternatiboari buruzko epaien betearazpenak posible diren ala ez ikusteko.

Laburbilduz, lan honen helburua behin-behineko espetxealdiaren egitura teorikoa eta praktikoa alderatuz, zigor prozesuan ematen den joera aztertzea izan da, eta aldi berean, espainiar ordenamendu juridikoan neurri alternatiboaren hutsunea nabarmentzea, beste ordenamendu juridiko batzuk eredutzat hartuz.

## II. BEHIN-BEHINEKO ESPETXEALDIAREN ERREGULAZIOA ESPAINIAR ORDENAMENDUAN

### A. Zer da behin-behineko espetxealdia? kontzeptua eta izaera juridikoa.

Behin-behineko espetxealdiaren nondik norakoak ulertzeko beharrezkoa da kautela neurrien errebaso txiki bat egitea. Sarreran aipatu dugun moduan, zigor prozesuan, etorkizunean etorriko den prozesu nagusia, haren funtzionamendu egokia, eta hartuko den erabakia bermatzeko, instrumentu batzuetaz baliatu daiteke: kautela neurriez.

Garrantzitsua da kautela neurri hauek hartzeko baldintza eta irizpide batzuk bete behar direla gogoraraztea; bete beharreko baldintza horiek, ordea, geroago aztertuko ditugu, behin-behineko espetxealdiarekin. Kautela neurriak hartzea, beraz, ez da inoiz era arbitrario eta automatikoan egingo, oreka prozesal bat bilatu behar baitu epaileak, *ius puniendiaren* aplikazioaren eta kautela neurriak hartzeak suposatzen duenaren artean.

Baina, zer suposatzen du kautela neurriak hartzeak? neurri handiagoan (behin-behineko espetxearen kasuan, esaterako) edo txikiagoan, akusatuaren eskubideez gabetzea. Pertsona bat kondenatu aurretik eskubideez gabetzea ez da inolako txikikeria, eta horregatik, kautela neurriak hartzeko prozesua ez da epaileak bere borondatez eta inolako legezko babesik gabe burutzen duen jarduera. Honen harira, kautela prozesua botere jurisdikzionalaren adierazpenetako bat dela aipatzen digu DE LA ROSA CORTINAK<sup>1</sup>, eta hori hala, kautela neurrien aplikazioa legezko oinarri baten gainean eraikitzen da. Zehazki, Konstituzioko 117.3 artikulua, botere jurisdikzionalaren egikaritza epaitzean eta epaitutakoa exekutatzean datzala jasotzen du, legeek zehaztutako Epaitegi eta Auzitegieei dagokielarik funtzioa. Horrenbestez, botere jurisdikzionala modu egokian egikaritzeko, hau da, legezko prozesu bat abiatu eta epaiketaren funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko, kautela neurriak jartzen ditu legegileak epaileen eskura.

Kautela neurrien errebasoarekin amaitzeko eta behin-behineko espetxealdiaren azterketan sartzeko, ezin egokiagoa iruditzen zait GIMENO SENDRAK aipatutako instrumentuen inguruan ematen digun definizioa: "*aquellas resoluciones motivadas del*

---

1. DE LA ROSA CORTINA, J.M., 2015. *Las Medidas Cautelares Personales En El Proceso Penal*. 1.Edizioa. Hospitalet de Llobregat: Bosch, 29.orrialdea.

*órgano jurisdiccional que pueden adoptarse contra el presunto responsable de la acción delictiva, como consecuencia de un lado, del surgimiento de su cualidad de imputado, y, de otro, de la fundada probabilidad de su ocultación personal o patrimonial en el curso de un procedimiento penal, por lo que se limita provisionalmente su libertad o la libre disposición de sus bienes con el fin de garantizar los efectos penales y civiles de la sentencia*<sup>2</sup>. Definizio honetatik ondorioztatzen dugunez, bi motatako kautela neurriak desberdintzen dira: ondarezkoak edo errealak -ondare eskubideei eragiten dietenak-, eta pertsonalak -askatasun eskubideari eragiten diotenak-. Azken hauek dira gure lanean interesatzen zaizkigunak, hauen barruan sartzen baita neurri kautelar guzteitan gogorrena: behin-behineko espetxealdia.

Behin-behineko espetxealdia definitzen duten milaka proposamen aurki ditzakegu, beren artean desberdinak, baina funtsean, ideia berbera jasotzen dutenak: zigor prozesuan, delitu bat burutzea egozten zaion pertsona askatasunaz gabetzen duen neurria da. Baldintza eta justifikaziorik jasotzen ez duen ideia argi hau hartu nahiko nuke abiapuntutzat, aitzakia legalen bidez konnotazio positiborik eman gabe, eta, bide batez, erreferentzia egin ikuspuntu prozesaletik behin-behineko espetxealdia azaltzen duen definizio bati; hala dio GUERRA PÉREZ autoreak: *“privación de la libertad a un sujeto, legalmente inocente, imputado por un delito de especial gravedad, que es ordenada por una resolución jurisdiccional, de carácter provisional y duración limitada, antes de que recaiga sentencia penal firme, con el fin de asegurar el proceso de conocimiento con la presencia del imputado durante el proceso o la ejecución de la eventual y futura pena*<sup>3</sup>.

Arestian aipatutako definiziotik abiatuta, bi puntu azpimarratu nahiko nituzke. Batetik, badakigu funtsean behin-behineko espetxealdiak pertsona bat askatasunaz gabetzen duela, eta hortaz, auzitan jartzen dena Konstituzioaren 17.artikuluaren jasotzen den oinarritzko eskubide bat dela: askatasun eskubidea. Hori hala izanda ere, SERRANO MAILLÓ autoreak esaten digun moduan, 17.artikuluaren erredakziotik ondorioztatzen dugu (*“...Nadie puede ser privado de su libertad, sino con la observancia de lo establecido en este artículo y en los casos y en la forma previstos en la ley...”*) askatasuna ez dela eskubide absolutu bat, baizik eta mugak dituela<sup>4</sup>. Zein muga? legeak aurreikusten dituenak.

---

2. GIMENO SENDRA, V., 2004. *Derecho Procesal Penal*. Colex: Madril, 481.orrialdea.

3. GUERRA PÉREZ, C.,2010. *La Decisión Judicial De La Prisión Preventiva*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 3.orrialdea.

4. SERRANO MAILLÓ, I., 2006. El derecho a la libertad y la prisión provisional. *Anuario de la Escuela Práctica Jurídica*. Universidad Complutense de Madrid,[online] (1.zenbakia) 1.orrialdea.

Bestetik, zigor prozesuan duen egoerari erreparatzen badiogu, behin-behineko espetxealdian dagoen pertsona oraindik ez da epaitua izan, eta are gutxiago kondenatua, eta horrek legearen begietan “errugabea” dela ohartzera eramaten gaitu. Oinarri juridikoa? Konstituzioaren 24.2.artikuluak, errugabetasun presuntzioa: inor ez da erruduna izango aurkakoa frogatu ezean. Oraindik ez dago epaiketarik, ez dago ezer frogaturik, eta logikoki ez dago kondenarik, beraz, behin-behineko espetxealdian dagoen pertsona errugabea da. Zein ondorio ateratzen dugu hemendik? legearen esparruan hartzen den neurria izanik ere, objetiboki, behin-behineko espetxealdiaren bidez errugabea den pertsona bati oinarrizko eskubideen artean ezinbestekoa den askatasuna kentzen zaiola.

Errugabetasun presuntzioaz ari garela, hona hemen Konstituzio Auzitegiaren hitzak: *“opera en el seno del proceso como una regla de juicio, pero constituye a la vez una regla de tratamiento, en virtud de la cual el imputado tiene derecho a recibir la consideración y el trato de no autor o no participe en hechos de carácter delictivo”*<sup>5</sup>. Hori hala, errugabetasun presuntzioa prozesu guztian zehar kontuan izateko tratamendu araua dela azpimarratu behar dugu; tratamendu arauaren kontuaren harira, ezinbestekoa da Europar Batasuneko 2016/343 Zuzentaraua: oraindik espainiar ordenamenduan barneratu gabe dagoen arren, errugabetasun presuntzioa eta epaiketan egoteko eskubidearen inguruko hainbat aspektu indartu baitzituen. Tratamendu arauak dakartzan eskubideen manifestazioetako bat 4.artikuluak jasotzen da: Estatukideek, autoritate publikoek eginiko adierazpen publikoetan, akusatua “errudun” ez izendatzea bermatu behar dute, frogatu ez den bitartean eta erruduntzat jotzen duen epai judizialik ez dagoen bitartean<sup>6</sup>.

Gauzak hala, akusatuak zigor prozesuan izan behar duen harrera erruduna ez den pertsona batena da, eta tratua hau, nire ikuspuntutik, kolokan jartzen da behin-behineko espetxeratzearekin. Zergatik? bada, behin-behineko espetxealdiaren izaera, jarraian aztertuko duguna, ustez kautelarra den arren, errudunak direnei ezartze zaizkien zigorren edo segurtasun neurrien izaerarekin identifikatzen dudalako, neurri batean.

Nire baieztapenekin guztiz desados, jurisprudenziak behin-behineko espetxealdiaren eta askatasunaz gabetzen duten zigorren artean banaketa bat egiten

5. Konstituzio Auzitegiaren 128/1995 epaia, uztailaren 26koa.

6. Esaterako, 2011ko ekainaren 28an Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, *Lizaso Azconobieta v. Spain* kasuan, Espainia zigortu zuen, ETako kide bat atxilotzean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak hilketa batzuen “egilea” zela adierazi zuelako prentsaurrean, “ustezko” hitza erabili gabe.

du. Hala, Konstituzio Auzitegiak desberdintasuna errugabetasun presuntzioak markatzen duela baieztatzen du, ondoren, behin-behineko espetxealdiaren izaera kautelarra azpimarratu nahian haren ezaugarri bereizgarriak aipatuz: *“ha de ser concebida, tanto en su adopción como en su mantenimiento, como una medida de aplicación excepcional, subsidiaria, provisional y proporcionada a los fines que constitucionalmente la justifican y delimitan”*<sup>7</sup>. Era berean, Zigor Kodeak behin-behineko espetxealdiaren izaera kautelarra berresten du, antolamenduarekin banaketa bat egiten duelarik kautela neurrien (34.1 artikulua) eta askatasun gabetzaileak diren zigorren (35.artikulua) artean.

Behin-behineko espetxealdiaren izaera juridikoa ulertzeko, banaketa bat egin behar dugu. Bi manifestazio dauzka aztergai dugun instituzioaren izaerak, bete nahi duen helburuari begira: alde batetik, izaera kautelarra, eta bestetik, izaera prebentiboa. Lehenari dagokionez, prozesuaren ikuspegiari egiten dio erreferentzia; hau da, behin-behineko espetxealdia kautela neurri bat da, eta hori zigor prozesuaren funtzionamendu egokia eta egon daiteken kondena bermatzeko nahian islatzen da. Hemen sartuko genituzke, beraz, akusatuak ihes egitea eta prozesuko frogen suntsipena sahiesteko helburuak, besteak beste.

Izaeraren bigarren manifestazioari dagokionez, MORILLAS CUEVA katedradunaren hitzetan, askatasun gabetzaileak diren zigorrekin gertutasun handia izan dezake behin-behineko espetxealdiak. Azken finean, prebentzio edo aurrezaintza funtzio orokorrean bat egiten dute, behin-behineko espetxealdiarekin zein zigor askatasun gabetzaileekin gizartearen aurrean hertsapen psikologiko bat eragin nahi baita, herritarrei legearen eta justiziaren eraginkortasuna erakutsiz eta zuzenbidea gailentzen dela adieraziz. Aurrezaintza berezian ere aipatu berri dugun autoreak parekatu egiten ditu bi instituzioak, bietan pertsona konkretu baten arriskugarritasuna onartzen denez, berriro delitu ekintza bat egitea saihestu nahi delako<sup>8</sup>.

## **B. Nolako bilakera historikoa izan du behin-behineko espetxealdiak?**

1978ko abenduaren 6an Konstituzioa onartu zenetik gaur egun arte erreforma ugari izan ditu behin-behineko espetxealdiak. Legegileentzat ez da lan erraza izan aztertzen ari garen instituzioaren nondik norakoak ezartzea, errealitate amaigabe batekin egiten baitute topo: nola lortu oreka bat gizartearen lasaitasuna eta

---

7. Konstituzio Auzitegiaren 98/2002 epaia, apirilaren 29koa.

8. MORILLAS CUEVA, L., 2016. Reflexiones sobre la prisión preventiva. *Anales de Derecho*. Universidad de Murcia, [online] (Vol.34, 1.zenbakia), 12.orrialdea.



segurtasuna bermatzearen eta oinarrizko askatasun batez gabetzeak dituen muga guztien artean?

Ezin dugu ahaztu, aurreko atalean ikusi dugun moduan, askatasun eskubideari balio handia eman zaiola 1812ko Konstituziotik hasita, gaur egun indarrean jarraitzen duen 1978ko Kontsutziorarte. 1978ko Konstituzioak 17.artikuluaren lehen atalean jasotzen du askatasun eskubidea, argi utziz, inor ezin dela askatasunaz gabetua izan, ez bada, legeak arautzen dituen kasuen arabera<sup>9</sup>. Beraz, artikulua, legekotasun printzipioaren babesean, askatasunaz gabetu ahal izateko aukera jasotzen du inplizituki. Artikuluaren bigarren atalak<sup>10</sup>, behin-behineko atxilotzearen iraupenaren inguruan hitz egiten du, gehieneko iraupen bat jarriz eta askatasun eskubidea errespetatzea bermatuz.

Gauzak hala, azter ditzagun 1978.urteaz geroztik behin-behineko espetxealdiak jasan dituen erreformak, eta ikus dezagun, zer nolako joera izan duen legegileak:

#### I. 16/1980ko Legea, apirilaren 22koa

1978ko Konstituzioa onartu zenetik behin-behineko espetxealdiaren inguruan egondako lehen erreforma izanik, Konstituzio berriak jasotzen zituen printzipioekin bat eginez aldaketa sakona ekarriko zuela espero zen. Espektatiba horiek, ordea, espektatiba hutsa izaten bukatu zuten, erreforma honekin soilik behin-behineko espetxealdia neurri gisa hartu zitekeen egoeren zabalkuntza bat eman baitzen. Horregatik, PASTOR MOTTA autorearen hitzetan, erreforma honekin printzipio konstituzional berriak gain hartuz, gutxi sakondu zela kontsideratu zen<sup>11</sup>.

Lege honek, Zioen Azalpenean, zehazki honakoa aipatzen du: *“...el aumento de cierto tipo de delincuencia que sin ser de extrema gravedad atenta a la tranquilidad ciudadana y hace aconsejable un mayor rigor de las medidas provisionales que el juez pueda decretar para asegurar la persona del detenido”*. Pasarte hau irakurtzetik ondorioztatzen dugu erreforma honekin behin-behineko espetxealdiari prebentzio helburua eman nahi izan zitzaiola.

9. Zehazki 17.1 artikulua erredakzioa: *“1. Toda persona tiene derecho a la libertad y a la seguridad. Nadie puede ser privado de su libertad, sino con la observancia de lo establecido en este artículo y en los casos y en la forma previstos en la ley”*.

10. Zehazki 17.2 artikulua erredakzioa: *“2. La detención preventiva no podrá durar más del tiempo estrictamente necesario para la realización de las averiguaciones tendentes al esclarecimiento de los hechos, y, en todo caso, en el plazo máximo de setenta y dos horas, el detenido deberá ser puesto en libertad o a disposición de la autoridad judicial”*.

11 . PASTOR MOTTA,L., 2003. La reforma de la prisión provisional. *Estudios Jurídicos. Ministerio Fiscal*, [online] (4.zenbakia) 695.orrialdea.

Horrenbestez, erreforma honek, kriminalitatearen gorakadaren aurrean sortu zen alarma sozialean aurkitu zuen justifikazioa edo azalpena. Gizartearen segurtasuna, eta neurri handi batean, lasaitasuna bermatzeko, beraz, behin-behineko espetxealdia agindu ahal izateko aukerak zabaldu egin ziren erreformarekin, eta horrek, logikoki, salbuespen printzipiotik urruntzea ekarri zuen. Zenbateraino? bada, Espainian espetxean zegoen jendearen erdia behin-behineko espetxealdi egoeran zegoena izateraino<sup>12</sup>.

Bestalde, azpimarragarria da 1981ko azaroaren 1ean Ministerio Fiskalak argitaratutako zirkularra, behin-behineko espetxealdiarekin lotuta. Zirkularraren bidez, aipatutako 16/1980 erreformak Prozedura Kriminaleko Legearen 503, 504 eta 505.artikuluei emandako erredakzioaren inguruan interpretazio bat egin zuen Ministerio Fiskalak: errugabetasun presuntzioan oinarrituta, behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa murriztearen aldeko interpretazioa<sup>13</sup>.

## II. 7/1983 Lege Organikoa, apirilaren 23koa

16/1980 Legearekin behin-behineko espetxealdiak zuen salbuespen izaeratik aldendu zela ikusita, 1983an, Felipe Gonzalezen gobernu sozialista Konstituzioak zituen helburuekin bat zetorren bideari berrekiten saiatu zen. Fernando Ledesma Bartret Ministroak bultzatutako erreforma izan zen, eta komunikabideei esker “Ledesma erreforma” izenez izan zen ezagutua.

Arestian aipatu dugun moduan, aurreko erreformaren ondorioz, egoera kezkarri batera heldu zen gizartea: Espainian preso zegoen biztanleriaren erdia behin-behineko espetxealdian zeuden presoak ziren. Egoera horrek jarraitu ezin zuenez, Ledesma erreformarekin aldaketa bat sortzen saiatu ziren. Ezin dugu aipatu gabe utzi, 1980ko ekainaren 27ko Europako Kontseiluaren Gomendioak<sup>14</sup> eragin handia izan zuela erreforma bat behar zela ohartzerako garaian, eta era berean, agintari espainiarrengan presio bat suposatu zuela.

Europako Kontseiluak argi utzi zuen behin-behineko espetxealdia ezin zela zigortzeko helburuekin erabili, eta beraz, haren erabilera neurri handi batean murrizten

12. ALONSO FERNÁNDEZ, J.A., 2019. *Tribunal Constitucional Y Fines De La Prisión Provisional*. Bartzelona: Bosch, 184. orrialdea

13. Circular N° 1/1982, de 4 de noviembre. Funciones del Ministerio Fiscal en relación con las situaciones de prisión provisional.

14. Europako Kontseiluaren Gomendioak, 1980ko ekainaren 27koak, besteak beste, behin-behineko espetxealdiaren salbuespenezko izaera defendatzen zuen.

saiatu behar zela. Gauzak hala, Ledesma erreformarekin, Prozedura Kriminaleko Legeko 503 eta 504.artikuluak erreformatu ziren, eta harekin batera, Europako Kontseiluaren Gomendioak jarraituz, behin-behineko espetxealdian zeuden preso asko aske utzi ziren. Hain izan zen masiboa espetxeetatik ateratzea, gizartean segurtasun falta handia eragin zuela<sup>15</sup>.

Funtsean, Ledesma erreformak bi aldaketa handi eragin zituen:

Lehena, behin-behineko espetxealdia agindu ahal izateko akusatuari egozten zitzaion delituaren gutxienerako zigorra igotzea izan zen; hala, gutxienez 6 urteko espetxe zigorrean ezarri zen muga (hainbat salbuespenekin), aurreko erreformaren 6 hilabeteko espetxealdiaren mugaren alboan. Aldaketa beraz, izugarria izan zen.

Bigarren aldaketa, berriz, behin-behineko espetxealdiaren iraupena murriztearen ingurukoa izan zen. Murrizteaz gain, gehieneko iraupen hori zehaztu nahi izan zen, Konstituzioko 17.4 artikuluari jarraituz, aurreko erreformak ezarritako muga ez baitzen zehatza ezta arrazoizkoa ere (egozten zen delituak zuen zigorraren iraupenaren erdia ezin zen gainditu). Hori hala, behin-behineko espetxealdiaren gehieneko iraupena sei eta hemezortzi hilabete artekoa ezarri zuen erreformak, kasuaren arabera.

Ledesma erreformak, ordea, ez zituen bete nahi zituen helburuak lortu. Behin-behineko espetxealdian zeuden presoek askatze masiboa zela eta delinkuentzia piztu egin zen eta honek gizartean berriro ere segurtasun falta eragin zuen. Delitu kopurua igo zenez, behin-behineko espetxealdian zeuden presoek eta zigor prozeduren kopuruak gora egin zuen<sup>16</sup>.

### III. 10/1984 Lege Organikoa, abenduaren 26koa

Erreforma honek atzera bueltatzea suposatu zuen, 7/1983 Lege Organikoarekin lortutako aurrera pausuak galduz. "Kontraerreforma" izenez ezagutu zen, nolabait Ledesma erreformak biltzen zituen printzipioak guztiz aldatu baitzituen. Gizartearen segurtasuna eta lasaitasuna bermatzearen ideia berreskuratu zen, segurtasun hori indartzea izan zelarik erreforma honen oinarria.

15. DE LA ROSA CORTINA, J.M., 2015. *Las medidas cautelares...*, op.zit, 52.orrialdea.

16. SERRANO BUTRAGUEÑO, I., 1996. *Comentarios Sistemáticos A La Ley Del Jurado Y A La Reforma De La Prisión Preventiva*. Peligros, Granada: Comares, 465.orrialdea.

Prozedura Kriminaleko Legearen 503, 504 eta 529.1 artikulua erreformatu zituen lege honek, ondorengo neurriekin<sup>17</sup>:

- Berrito ere behin-behineko espetxealdia agindu ahal izateko akusatuari egotzitako delituaren gutxieneko zigorraren muga aldatu egin zen: nahikoa zen egozten zen delituak gutxieneko espetxealdiaren zigorra izatea; hau da, hilabete eta egun batetik sei hilabeterako zigorra.
- Behin-behineko espetxealdia agindu ala ez erabakitzerako garaian epaileak kontuan hartu beharreko irizpide berriak sartu ziren: eragin zezakeen alarma soziala eta delituzko ekintza analogoak burutzeko akusatuak zuen maiztasuna.
- Espero zen moduan, behin-behineko espetxealdiak izan zezakeen gehieneko iraupena ere igo egin zuen erreformak, muga lau urte arte luzatuz.

Ondorioz, erreforma honekin behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa areagotzearen alde egin zen, neurri kautelar honek berezkoak dituen ezaugarrietatik aldentuz<sup>18</sup>. Sartutako aldatetekin, itxuraz, azken errekurtsio gisa erabili beharrean, ia automatikoki har zitekeen neurria zirudien behin-behineko espetxealdiak. Azpimarragarriena zera da: errugabetasun printzipioa eta askatasun eskubidea bezalako printzipio konstituzionalen aldeko defentsa egin zuen gobernu berak, urtebeteko epean, aurreko erreformaren porrota ikusita, printzipio horietatik aldentu eta aldatetaren justifikazioa gizartearen bakea eta segurtasuna bermatzean aurkitu zuela.

Ezin dugu esan printzipio horietatik aldentzea zela Gobernuaren asmoa, Zioen Azalpenean argi utzi nahi izan baitzuen behin-behineko espetxealdia ezin zela neurri automatikoa izan: *“En primer lugar, dar una nueva formulación a los supuestos en que puede decretarse la prisión provisional, de acuerdo con la doctrina del Tribunal Constitucional de que la medida no ha de aplicarse con automatismo, sino que la autoridad judicial tomara su decisión «teniendo en cuenta las circunstancias del caso»”*<sup>19</sup>. Praktikan, ordea, behin-behineko espetxealdia hartzeko aukerak areagotu zituen, eta horrek, nahi ala ez, errugabetasun printzipiotik eta askatasun eskubidetik urruntzea suposatzen du.

17. ALONSO FERNÁNDEZ, J.A., 2019. *Tribunal Constitucional Y Fines...*, op.zit, 190. orrialdea.

18. Era berean, Fernández Entralgok erreformak behin-behineko espetxearen izaera prebentiboa edo kautelarra galtzea eragin zuela azpimarratzen du, aztergai dugun instituzioaren funtzioa zigorraren edo segurtasun neurrien ereduarekin parekatzera eramanez. FERNÁNDEZ ENTRALGO, J., 1989. El compromiso del juez penal con la tutela de los derechos y libertades fundamentales. *Revista del Poder Judicial*. (Nº extra 10), 71-96. orrialdeak.

19. 10/1984 Lege Organikoa, abenduaren 26koa. Zioen Azalpena.

#### IV. 5/1995 Lege Organikoa, maiatzaren 22koa

Zinpekoen Epaimahaiari buruzko Lege Organikoa da. Behin-behineko espetxealdiaren irizpideak eta epeak arautu ez zituen arren, garrantzi handikoa izan zen. Behin-behineko espetxealdiaren neurria erabakitzeko prozedura aldatu zuen, kontraesan eta akusazio printzipioetara egokituz. Zioen Azalpenean, kautela neurriari buruzko aldaketen inguruan honakoa dio: *“La introducción de un nuevo artículo 504 bis 2 en la Ley de Enjuiciamiento Criminal, respecto a la adopción de medidas cautelares de privación o restricción de la libertad, incorpora una necesaria audiencia del Ministerio Fiscal, las partes y el imputado asistido de letrado, inspirada en el principio acusatorio, y suprime la exigencia de ratificación del auto de prisión. De esta forma, la limitación de la iniciativa judicial se equilibra con la instauración de los beneficios del contradictorio, sin perjuicio del carácter reformable de las medidas adoptadas durante todo el curso de la causa”*<sup>20</sup>.

Hortaz, Zinpekoen Epaimahairi buruzko Lege Organikoak Prozedura Kriminaleko Legeko 504 bis 2 artikulua aldatu zuen. Bi berrikuntza sartu zituen legeak, behin-behineko espetxealdia dekretatzeko baldintzen inguruan: batetik, beharrezkoa izango zen aldeetako baten eskaera egotea, akusazio printzipioa babeste aldera; bestetik, ezinbestekoa izango zen aldeek parte hartuko zuten aurretiazko audentzia bat egotea, kontraesan printzipioarekin bat.

Honen harira, 1995eko azaroaren 22an, Fiskaltzak 2/1995 zirkularra argitaratu zuen. Bertan, legegileak erreforman izandako asmoa kautela neurriak akusazio eta kontraesan printzipioetara hobeki egokitzea izan zela argi utzi zuen, zigor prozesu modernoaren oinarriko ezaugarriak baitira, jurisprudentziaren esanetan.

#### V. 13/2003 Lege Organikoa, urriaren 24koa

- Aurrekariak

1995eko azkeneko erreformaz geroztik, zigor prozesu espainiarrean behin-behineko espetxealdiaren erregulazioa aldatzeko asmoa zegoela ikusi zen, eta horren adierazle izan ziren batetik, 2000. urteko Konstituzio Auzitegiaren 47/2000 epaia,

---

20. 5/1995 Lege Organikoa, maiatzaren 22koa, Zinpekoen Epaimahaiari buruzkoa. Zioen Azalpena.

martxoaren 17koa, eta bestetik, 2001ean sinatu zen Justizia Erreformatzeko Estatu Ituna.

Lehenagoari dagokionez, behin-behineko espetxealdia ezarri zioten pertsona batek babes helegitea jarri zuen Konstituzio Auzitegiaren aurrean, Konstituzioaren 17.1 eta 24.artikuluak urratu zirela alegatuz. Zergatik? Behin-behineko espetxealdia dekretatu zuen autoak ez zuelako nahikoa arrazoirik ematen neurri hura hartzeko. Aurkatutako autoak<sup>21</sup>, behin-behineko espetxealdia justifikatzeko Prozedura Kriminaleko Legearen 503 ta 504 artikuluetara jo zuen, esanez, akusatuei egotzitako delituarentzat aurreikusitako zigorraren zenbatekoa eta horrek sor zezakeen alarma soziala nahikoa zela neurria hartzeko.

Konstituzio Auzitegiak, autoaren motibazio faltak oinarrizko eskubideak urratu zituela adierazi zuen, behin-behineko espetxealdiaren izaera kautelarra azpimarratuz, eta argi utziz, behin-behineko espetxealdia agindu ahal izateko ezinbestekoa zela pisuzko arrazoietan oinarritzea: *“Es esa finalidad cautelar y no represiva lo que permite acordarla sin vulnerar la presunción de inocencia, subrayando después que la falta de expresión de ese fundamento justificativo afecta a la misma existencia del presupuesto habilitante de la privación de libertad y, por lo tanto, al derecho fundamental proclamado en el art. 17 C.E”*<sup>22</sup>

Epai honek berebiziko garrantzia izan zuen, Konstituzio Auzitegiak Prozedura Kriminaleko Legearen 503 eta 504.artikuluen konstituziokontraotasuna aurkeztu zuelako, Konstituzioko 17.1 artikulua, askatasun eskubidea jasotzen duena, urratzen zuela adieraziz: *“...la Ley ni exige la presencia de un fin constitucionalmente legítimo para acordar tal medida, ni determina cuáles son los fines constitucionalmente legítimos que permiten acordarla ni, por lo tanto, exige que éstos se expresen en la resolución que la acuerda...”*<sup>23</sup>.

Bestalde, lehenago aipatu dugu 2001ko maiatzaren 28an Justizia Erreformatzeko Estatu Ituna sinatu zela. Bertan, 17.klausulan, Prozedura Kriminaleko Legean egin beharreko aldaketak jaso ziren, eta horien artean, behin-behineko espetxealdiaren erregimena aldatzeko beharra, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzeko asmoz.

---

21. Auto de la Sección 6ª de la Audiencia Provincial de Barcelona, de 6 de febrero de 1996, por el que se resolvió recurso de apelación contra los autos de los Juzgados de Instrucción núm.2 de Sabadell y núm. 5 de Barcelona, dictados en las diligencias previas 829/95 y 577/95.

22. Konstituzio Auzitegiaren 47/2000 epaia, martxoaren 17koa; 9.oinarri juridikoa.

23. Konstituzio Auzitegiaren 47/2000 epaia, martxoaren 17koa; 5.oinarri juridikoa.

- Erreforma

Azkenean, 2003ko abenduaren 24ean etorri zen behin-behineko espetxealdiaren erregimena aldatzen zuen erreforma. Aurrerapausu handia suposatu zuen, aztergai dugun kautela neurriaren aplikazioa asko murriztu baitzuen. Bere helburu nagusien artean, honakoak azpimarratzen ditu DE LA ROSA CORTINA autoreak: batetik, behin-behineko espetxealdia gizartearen lasaitasuna bermatzeko tresna gisa ulertzearen ideiarekin hautsi nahi izan zen, eta bestetik, akusatuari aurretiaz jartzen zaion zigor gisa aplikatzearekin amaitu nahi izan zen<sup>24</sup>. Erreforma honekin zigor prozesuan akusatu bati behin-behineko espetxealdia ezarri ahal izateko legeak eskatzen zituen baldintzak eta helburuak aldatu zituzten, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak ezartzen zituenekin bat eginez. Azter ditzagun aldaketak.

Behin-behineko espetxealdiaren baldintza orokorrei dagokienez, Konstituzio Auzitegiak aipatzen dituen berberak ezarri zituen erreformak: salbuespen izaera, subsidiariorotasuna, proportzionaltasuna, eta probisionaltasuna edo behin-behinekotasuna. Bestalde, zigor prozesuan, epaileak behin-behineko espetxealdia agindu ala ez erabakitzeke unean, oinarri edo baldintza nagusi baten existentzia beharrezkoa zela zehaztu zuen erreformak, eta noski, Konstituzio Auzitegiak eskatzen zuen baldintza berbera zen: batetik, delituzko izaera duen egitate (edo egitateak) agerian egotea; bestetik, espetxeratuko den pertsonak delituagatik erantzukizun kriminala duela adierazten duten zio nahikoak egotea. Ezaugarri hauek guztiak, hurrengo ataletan aztertuko ditugu sakonago.

### **C. Zein dira behin-behineko espetxealdiaren printzipio orokorrak?**

Aurreko atalean 13/2003 Lege Organikoak, urriaren 24koak behin-behineko espetxealdiaren erregulazioarentzat aldaketa handia suposatu zuela aipatu dugu, instituzio honen oinarri diren baldintza eta helburu irmoak ezarri zirelarik. Hala, erreformarekin behin-behineko espetxealdiaren erregulazioa Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitu nahi izan zen, kautela neurriak espainiar ordenamenduko arau gorena errespetatzea baitzen hari zilegitasuna emateko modu bakarra.

Honen harira, Zioen Azalpenean hala dio erreformak: “[...] *la jurisprudencia del Tribunal Constitucional ha ido imponiendo requisitos -con el tiempo cada vez más*

---

24. DE LA ROSA CORTINA, J.M., 2015. *Las medidas cautelares...*, op.zit, 54. orrialdea.

claros y exigentes- para que la institución de la prisión provisional sea respetuosa con el contenido esencial del derecho a la libertad, tal y como viene consagrado en su artículo 17 de la Constitución, y del derecho a la presunción de inocencia, consagrado en el artículo 24.2”, eta era berean, “El Tribunal Constitucional, de forma paulatina pero unívoca, ha ido estableciendo una serie de características que la prisión provisional ha de cumplir en todo caso para adecuarse a los postulados de nuestra Constitución”<sup>25</sup>. Horrenbestez, espainiar ordenamendu juridikoan, gaur egun, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak eta lege honek berretsitako printzipio batzuek osatzen dute behin-behineko espetxealdiaren izate juridikoa. Zein printzipiotaz ari gara?

## I. Salbuespen izaera

Behin-behineko espetxealdia salbuespenetzko neurri bat da, beraz, *contrario sensu* interpretatuta, arau orokorra askatasuna da. Honek, Konstituzio Auzitegiak aipatzen duen *favor libertatis* printzipiora garamatza: “Como consecuencia de esta característica de la excepcionalidad, rige el principio de favor libertatis o de in dubio pro libertate, formulaciones que, en definitiva, vienen a significar que la interpretación y aplicación de las normas reguladoras de la prisión provisional "debe hacerse con carácter restrictivo y a favor del derecho fundamental a la libertad que tales normas restringen, dado, además, la situación excepcional de la prisión provisional”<sup>26</sup>. Horrenbestez, oinarria zera da: epaiketa noiz iritsiko esperoan dagoen akusatuak printzipioz aske egon behar du, babes konstituzionala ez ezik nazioarteko hitzarmenek ere babesten duten oinarrizko eskubide bat baitago jokoan: askatasuna.

## II. Subsidiariorasuna

Salbuespen printzipioak behin-behineko espetxealdiaren gainerako printzipioak barne hartzen dituela esan genezake; beraz, kautela neurrietan gogorrena denaren subsidiariorasuna salbuespen izaera horren adierazpen gisa identifikatzen da, Prozedura Kriminaleko Legean, zehazki 503.2 artikuluan jasotzen delarik. Artikuluak zera esaten digu: objetiboki beharrezkoa denean eta nahi den helburua lortzeko beste kautela neurri arinagorik aplikatu ezin denean soilik izango da posible behin-behineko espetxealdia.

---

25. 13/2003 Lege Organikoa, urriaren 24koa; Zioen Azalpena.

26. Konstituzio Auzitegiaren 98/2002 epaia, apirilaren 29koa. 3.oinarri juridikoa.



Subsidiarotasun izaera azaltzeko, askatasun eskubideari begira neurri arinagoen existentzia aipatzen du artikulua. Honen harira, Europako Ministro Kontseiluaren II Gomendioak, 1980ko ekainaren 27koak, behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa murriztearen alde egin zuen, horretarako kautela neurri alternatiboak proposatuz<sup>27</sup>. Horrek subsidiarotasun izaeraren inguruan honako interpretazioa egitera narama: behin-behineko espetxealdiaren subsidiarotasun izaera benetakoa izan dadin, askatasunari begira arinagoak diren neurri alternatiboak egon behar dira; neurri alternatibo horien existentziaren gainean eraikiko da subsidiarotasuna, behin-behineko espetxealdia piramidean azkena izanik. Horrenbestez, nire ustetan, ez badago neurri alternatiborik, ez dago subsidiarotasunik.

Neurri alternatiboaren gaia aurrerago aztertuko dut lanean, baina, gogoeta bat bultzatu nahiko nuke aurretik: ba al dago espainiar ordenamenduan neurri alternatiborik?

### III. Behin-behinekotasuna eta iragankortasuna

Izenak berak dioen bezala, behin-behineko izaera dauka kautela neurri honek. Tokioko Arauak deritzenek, honen inguruan zera ezarri zuten: behin-behineko espetxealdiak ezin duela helburuak lortzeko behar dena baina denbora gehiago iraun<sup>28</sup>. Era berean, Prozedura Kriminaleko Legearen 504.1 artikulua kautela neurriaren iraupena mugatzen du, helburuak betetzearen irizpidez gain, beste ezaugarri bat gehituz: behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa justifikatzen duten baldintzak mantentzea. Horrenbestez, neurria hartzeko beharrezkoak izan diren baldintzak irauten duten bitartean izango da zilegi behin-behineko espetxealdia. Horiek aldatuz gero, neurria aldatu edo altxatu ahal izango da.

Behin-behinekotasunarekin lotuta, denbora izaera edo iragankortasuna daukagu. Bi printzipioak bereiztea ia ezinezkoa da, baliokideak baitira beren artean. Esan bezala, behin-behineko espetxearen iraupena mugatzen duten bi irizpide daude (helburuak betetzea eta hartzeko baldintzak), baina horiekin batera, iragankortasun printzipioari jarraituz, behin-behineko espetxealdiaren denbora muga zehatzak ezartzen ditu legeak. Zergatik? Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, hiritarren segurtasun juridikoa bermatzeko eta era berean oinarrizko eskubide baten gabetzea neurtzeko<sup>29</sup>.

27. DE LA ROSA CORTINA, J.M., 2015. *Las medidas cautelares...*, op.cit, 64.orrialdea.

28. Nazio Batuek askatasun gabetzaileak ez diren neurrien inguruan hartutako arauak, Tokioko Arauak deritzenak. Nazio Batuen Batzar Nagusiak hartu zituen 1990eko abenduaren 14ean, 45/110 ebazpenarekin. 6.1 erregela.

29. Konstituzio Auzitegiaren 95/2007 epaia, maiatzaren 7koa, 4. oinarri juridikoa: "[...] *La imposición constitucional de que el legislador determine el plazo máximo de duración de la prisión provisional*

Horrenbestez, Prozedura Kriminaleko Legeak, 504.artikuluan, behin-behineko espetxealdiaren denbora muga desberdinak ezartzen ditu, kasuaren ezaugarrien arabera gehiago luzatu daitezkeenak.

#### IV. Proportzionaltasuna

MORILLAS CUEVA katedradunak 13/2003 Lege Organikoaren Zioen Azalpenaren irakurketa bat egiten du, proportzionaltasunaren harira legegilearen interpretazioarekin bat eginez: “ [...] *dicho principio reclama que las normas legales restrictivas de derechos fundamentales deban tener un contenido tal que la limitación de los derechos fundamentales que esta institución comporta sea proporcionada a los fines que con ella se pretenden alcanzar*”.<sup>30</sup> Ideia honetik abiatuz, proportzionaltasunaren funtsa oinarrizko eskubidearen murrizketaren eta harekin lortu nahi den helburuaren arteko oreka da.

Horregatik, Prozedura Kriminaleko Legeak behin-behineko espetxealdia erabakitzeko kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat ezartzen dio: neurriak akusatuarengan izan dezakeen eragina. Eragin hori baloratzeko, legeak irizpide batzuk zerrendatzen ditu: akusatuaren zirkunstantziak, egozten zaion delitu egintzaren ezaugarriak, eta ezarri diezaioketen zigorraren haraindikotasuna<sup>31</sup>.

Proportzionaltasun printzipioak, pertsonalki, jokoan dauden ondasun juridiko desberdinen arteko borroka batera narama. Alde batetik, akusatuaren oinarrizko eskubide bat daukagu, askatasuna; bestetik, delitu ekintzak urratu duen ondasun juridikoa eta haren titularraren interesa. Beraz, bien errespetua bilatzeko saiakera batean, eta helburua proportzionaltasuna izanik, behin-behineko espetxealdia dekretatzerako momentuan gogoan izan beharreko hainbat puntu datorzkit burura: oraindik epaiketarik egon ez denez, ez da akusatuaren erruduntasunik frogatu, eta beraz, errugabetasun presuntzioaren izenean, akusatua legearen aurrean errugabea da. Errugabea den heinean, askatasun eskubidea bermatu behar zaio, arau orokor gisa. Hortaz, behin-behineko espetxealdian sartu behar bada, izan dadila delituaren arriskugarritasuna handia delako, akusatuaren erantzukizun penala demostratzen duten zantzu handiak daudelako, eta biktimaren ondasun juridikoa berriro ere

---

*encuentra su último fundamento en la seguridad jurídica de los ciudadanos, que con la previsión legal tienen la posibilidad de conocer hasta qué momento puede durar la restricción de su derecho fundamental a la libertad en virtud de la medida cautelar*”.

30. MORILLAS CUEVA, L., 2016. Reflexiones sobre la prisión..., op.zit, 27.orrialdea.

31. Prozedura Kriminaleko Legearen 502.3 artikulua.

lesionatzeko arriskua dagoelako. Soilik elementu horiek guztiak frogatzen badira esan ahalko da erabakia proportzionala dela. Bestela, ezingo litzateke behin-behineko espetxealdia dekretatzea legezkotasunez justifikatu.

## V. Legezkotasuna

Konstituzioko 17.artikuluaren lehen atalak askatasun eskubidea jasotzen du eta argi uzten du, askatasun eskubidea urratzeko modu bakarra legez araututako modua izango dela. Kontuan izan behar dugu aztergai dugun instituzioak urratzen duen askatasuna ez dela edonolako eskubidea; babes konstituzionalaz haratago<sup>32</sup> iristen den oinarrizko eskubidea da. Gauzak hala, behin-behineko espetxealdiak legezkotasun printzipioaren menpe egon behar du, eta beraz, neurriaren helburu eta funtzioak betetzeko beharrezkoa da legezko gaikuntza izatea<sup>33</sup>.

Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, oinarrizko eskubide eta askatasun publiko orotan estatuak esku hartzeko, horien egikaritzaren inguruan arauak garatzeko edota egikaritze mugatu edo murrizteko legezko gaikuntza bat behar da<sup>34</sup>. Halaber, Konstituzioko 53.1 eta 81.1 artikuluek oinarrizko eskubideen edozein garapen edo murrizketa Lege Organikoz arautuko direla jasotzen dute. Bertatik ondorioztatzen dugu, behin-behineko espetxealdiak askatasun eskubideaz gabetzen duen heinean, legeak arautzen dituen xedapenei jarraiki hartuko duela erabakia epaileak.

## VI. Jurisdikzionalitatea

Hala dio Prozedura Kriminaleko Legeko 502.1 artikulua: “1. *Podrá decretar la prisión provisional el juez o magistrado instructor, el juez que forme las primeras diligencias, así como el juez de lo penal o tribunal que conozca de la causa*”. Hortaz, soilik epaile eta Auzitegiek hartu dezakete behin-behineko espetxealdiaren erabakia. Zigor zuzenbidearen aplikazioan, berme jurisdikzionala legezkotasun printzipioaren adierazpenetako bat da. Zehazki, berme jurisdikzionalak ondorengoak dakar: zigor zuzenbidea soilik epaile eta auzitegiek aplikatzen dute, prozesu baten arabera<sup>35</sup>.

## VII. Instrumentaltasuna

---

32. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak 3.artikuluari jasotzen du askatasun eskubidea.

33. MIGUEL BARRIO, R., 2020. Estudio de la prisión provisional a nivel teórico y jurisprudencial a tenor del caso de Sandro Rosell. *Revista General de Derecho Procesal* 50,. 9.orrialdea.

34. Konstituzio Auzitegiaren 49/1999 epaia, apirilaren 27koa. 4. oinarri juridikoa.

35. MONTERO AROCA, J., GÓMEZ COLOMER, J.L., BARONA VILAR, S., *Derecho jurisdiccional I Parte General*. 25.edizioa. Valentzia: Tirant lo Blanch, 278.orrialdea.

Kautela neurri bat den heinean, behin-behineko espetxealdiak zigor prozesuan helburu batzuk lortzeko instrumentu gisa jokatzeko du. Zein helburu? batik bat, zigor prozesuaren eragikortasuna eta amaierako epaiaren exekuzioa bermatzea.

#### **D. Zein dira neurria hartzeko baldintza eta helburuak?**

Aurreko ataletan ikusi dugu askatasun eskubidea Konstituzioko 17.artikuluari jasotzen den oinarriko eskubidea dela eta arauak dioen moduan, inor ezin dela askatasunaz gabetua izan. Aitzitik, Konstituzio Auzitegiak esan bezala, ez dago mugarik ez duen oinarriko eskubiderik. Eskubide orok dauka muga bat, Konstituzioak berak edota lege indarra duten arauak ezarria, jokoan egon daitezkeen beste ondasun juridiko batzuk babestu behar baitira batzuetan<sup>36</sup>. Askatasun eskubidearen muga, zehazki, pertsona bat hartaz gabetzen dutenean agerian geldituko da, eta, ikusi dugun moduan, aztergai dugun neurriarekin ezin hobe islatzen da ideia hori.

Behin-behineko espetxealdiarekin, hortaz, akusatua eskubideen gabetze bat jasaten du, neurri kautelar oro hartzen denean bezala. Eskubide baten gabetzea dela eta, legezketasun printzipioari lotuta dago behin-behineko espetxealdian aplikazioa. Horregatik, ezinbestekoa da aurrebaldintza batzuk ematea akusatua behin-behineko espetxealdian sartzeko. Jurisprudentziak tradizionalki berretsi egin ditu jarraian aztertuko ditugun aurrebaldintza horiek, epaileak behin-behineko espetxealdia dekretatu ahal izateko bete beharrekoak:

##### *I. Fumus boni iuris*

Aurrebaldintzetan lehena, *fumus boni iuris* edo benetako eskubidearen itxura deritzona da. Zer adierazi nahi da honekin? bada, zigor prozesuan epaituko den delitu egintza, akusatuta dagoen pertsona horrek egin duela adierazten duten seinale edo zantzu sendoak egon behar direla, hura behin-behineko espetxealdian sartzeko. Kautela neurrien arloan irizpide edo aurrebaldintza honen jatorriaz ari direla, RODRIGUEZ PORTUGUÉS eta BUENO ARMIJOK Europako Erkidegoko Zuzenbideari egiten diote erreferentzia, esanez, *fumus boni iuris* kontzeptua lehenik bertan agertu zela, ondoren jurisprudenzia espainiarrak bere egin zuela, eta ondorioz, legegileek

---

36. Konstituzio Auzitegiaren 2/1982 epaiak, urtarrilaren 29koak, erreferentzia egiten dio Sala berberak 1981eko apirilaren 8an emandako epaiari.

jaso zutela<sup>37</sup>. Jatorriaren hurrenkerari buelta emanaz, ikus dezagun, lehenik, legean jasotakoa eta ondoren jurisprudentziaren garapena.

Prozedura Zibileko Legeak, 503.artikuluaren behin-behineko espetxealdia dekretatu ahal izateko baldintzak jasotzen ditu, eta horien artean bigarrenak, *fumus boni iuris* kontzeptuari egiten dio erreferentzia: “*Que aparezcan en la causa motivos bastantes para creer responsable criminalmente del delito a la persona contra quien se haya de dictar el auto de prisión*”. Ikus dezakegun bezala, legegileak akusatua delituagatik erantzukizun penala duela uste izateko arrazoi nahikoa egon behar zirela jaso zuen.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak, aldiz, beste terminologia bat erabiltzen du, aurrebaldintza hau azaltzeko: kriminalitate-zantzu nahikoa egon dadila (*existencia de indicios racionales de criminalidad / de la comisión de un delito grave*)<sup>38</sup>. Doktrinan bi erabileren parekidetasunaren inguruko iritzi bateraturik ez dagoen arren, argi dagoena zera da: pertsona konkretu baten aurka elementu egozgarriak egon behar direla, eta elementu horiek probabilitate maila altu batean akusatua erantzukizun penala duela uste izateko nahikoa sendoak izan behar direla<sup>39</sup>.

Bestalde, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak, behin-behineko espetxealdiaren aplikazioaz eta erabakitzeko uneaz ari dela, behin eta berriro azpimarratu du kriminalitate-zantzu<sup>40</sup> horiek daudela egiaztatzearen baldintzak *conditio sine qua non* gisa funtzionatzen dutela<sup>41</sup>. Beraz, *contrario sensu* interpretazio bat eginez, ez badago nahikoa susmo, zantzu edo motibo arrazoiturik, edo horien existentzia egiaztatzen ez bada, ezingo da akusatua behin-behinean espetxeratu.

## II. *Periculum in mora*

Behin-behineko espetxealdia erabakitzeko bigarren aurrebaldintza latinezko *periculum in mora* esamoldearekin definitzen da. Orokorrean kautela neurriak hartzeko baldintza gisa ezagutzen da, baina behin-behineko espetxealdiaren kasuan pisu

37. RODRIGUEZ PORTUGUÉS, M.A. eta BUENO ARMIJO, A., 2007. El fumus boni iuris como criterio contrario al solicitante de medidas cautelares. ¿Un traidor entre los aliados? *Comentarios monográficos, Revista de Administración Pública*, [online] (172.zenbakia) 229.orrialdea.

38. Konstituzio Auzitegiaren 62/1996, apirilaren 12koa.

39. ALONSO FERNÁNDEZ, J.A., 2017. *Pasado Y Presente De Los Fines De La Prisión Provisional En España*. Doktoretza Tesia. Universitat Internacional de Catalunya. 218.orrialdea.

40. Egia esan, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak ez du “kriminalitate-zantzu” terminologia erabiltzen, “susmo arrazoituak” (*razonables sospechas*) baizik.

41. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epai desberdinak aipatzen ditu Konstituzio Auzitegiaren 128/1995 epaiak, uztailaren 25ekoak: 1969ko arazoaren 10ekoa, Stögmüller kasua, 4.oinarri juridikoa; 1993ko urtarrilaren 26koa, W Suitzaren aurka, 30.paragrafoa;...

handiko irizpidea da. Ikuspegi orokor batetik, prozesuaren eraginkortasunean egon daitekeen arriskuarekin identifikatzen da. Azken finean, prozesuaren iraupena dela eta, akusatua zigor prozesuko eginbide eta jarduera guztiak oztopatzeko arrisku bat egon daiteke. Eraginkortasuna zapuzteko arrisku horrek zerikusia izan dezake akusatuaren pertsonarekin eta baita bere ondarearekin: zigor prozesuan baliagarriak izan daitezken frogak suntsitzea, ezkutatzea edota aldatzea, akusatua ihes egitea, berriro ere delitu bat burutzea...

Behin-behineko espetxealdiaren kasuan aipatu berri dugun arriskuak akusatuaren pertsonarekin dauka lotura. *Periculum in mora* aurrebaldintzak, nagusiki, akusatua ihes egiteko egon daitekeen arriskuari egiten dio erreferentzia. Arrisku horren existentzia frogatuta, behin-behineko espetxealdiaren instrumentaltasuna ezartzen du epaileak mahaigainean, neurri kautelarrak dituen helburuak betetze aldera: akusatua behin-behinean espetxeratzen bada, zigor prozesuan egongo da ziurtasunez, eta ondorioz, prozesuaren eta amaierako epaiaren eraginkortasuna bermatuko da.

Ilido beretik, geroago aztertuko dugun Prozedura Kriminaleko Legeak, zigor prozesuan akusatuaren presentzia edo agerpena bermatzea behin-behineko espetxealdiaren helburu legítimo<sup>42</sup> gisa jasotzen du, besteak beste. Ikuspegi prozesualtik, legitimotasun horren oinarria, zigor prozesuaren berezko ezaugarrietako batekin lotu genezake: arau orokor gisa, ezin da ahozko judiziorik burutu akusatuaren agerpenik gabe. Gaur egun erregela orokor horrek salbuespenak dituen arren, delitu larrien kasuan printzipioak bere horretan jarraitzen du, ezinbestekoa baita defentsa eta kontraesan eskubideak bermatzeko. Hala azaltzen dute MONTERO AROCA, GÓMEZ COLOMER, eta BARONA VILAR katedradunek: *“En el proceso penal la necesidad de ser oído adquiere connotaciones especiales cuando se trata del acusado pues para éste no es un derecho renunciabile. Especialmente para el Estado, titular del ius puniendi, la presencia del acusado es un deber ineludible, y de ahí que no pueda celebrarse el juicio oral en rebeldía”*<sup>43</sup>.

Ihes egiteko arriskua aipatu dugu, baina ezin dugu ahaztu, *periculum in mora* aurrebaldintzak beste arrisku batzuk ere barne hartzen dituela, epaileak behin-behineko espetxealdia erabakitzeke kontuan izan beharrekoak: akusatua zigor

---

42.Hala dio Prozedura Kriminaleko Legearen 503.1.3º artikularen a) atalak, behin-behineko espetxealdiaren helburu legítimoez ari dela: *“asegurar la presencia del imputado en el proceso cuando pueda inferirse racionalmente un riesgo de fuga”*.

43.MONTERO AROCA, J. GÓMEZ COLOMER, J.L. BARONA VILAR, S., *Derecho jurisdiccional...*, op.zit, 252.orrialdea.

prozesuan baliagarriak izan daitezken frogak ezkutatu, suntsitu edo aldatzeko arriskua, biktimaren ondasun juridikoen aurka jarduteko arriskua eta akusatuak berriro delitu bat burutzeko arriskua; horiek denak baloratzeko, legeak aurreikusitako elementuei erreparatu beharko die epaileak. Arrisku horiek dira, hain zuzen ere, Prozedura Kriminaleko Legeak 503.artikuluaren 3.atalean jasotzen dituenak. Xedapenak, behin-behineko espetxealdia soilik arrisku horiek ekiditeko helburuz hartzea onartzen du. Helburu horiek “konstituzionalki legezkoak diren helburuak” adierazpenarekin izendatu ditu Konstituzio Auzitegiak, behin eta berriro berretsiz behin-behineko espetxealdia xede zehatz horiei lotuta dagoela<sup>44</sup>.

Aurrebaldintza eta helburuak betetzeaz gain, behin-behineko espetxealdia legezkoa izan dadin beste baldintza bat eskatzen du Prozedura Kriminaleko Legearen 503.1.1 artikulua. Akusatuari egotzen zaion delituarako Zigor Kodeak jasotzen duen zigorraren larritasunari egiten dio erreferentzia, muga bat ezarriz: bi urte edo gehiagoko espetxe zigorra aurreikusten duen delituagatik egotzita dagoenean espetxeratu daiteke akusatua behin-behinean. Salbuespen gisa, posible da bi urte baina gutxiagoko espetxe zigorra izatea, betiere dolozko delituagatik aurrekari penalak kitatu gabe badauzka akusatuak.

## **II. BEHIN-BEHINEKO ESPETXEALDIAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA**

### **A. Espainiar ordenamendua: datu errealak.**

Aurreko atalean behin-behineko espetxealdiaren nondik norakoak aztertu ditugu: ezaugarri orokorrak eta izaera juridikoa, izan duen bilakaera historikoa, espainiar ordenamenduan duen erregulazioa... Argi gelditu zaigu askatasuna bezalako oinarritzko eskubide batez gabetzen duen neurria denez, salbuespen izaera duela eta beraz, *favor libertatis* printzipioari jarraiki, beste neurri onuragarriago eta arinago bat aplikatu ezin denean soilik erabili behar dela.

Teorian beraz, ez dago zalantzarik. Praktikan, ordea, zenbaterainoko aplikazioa dauka behin-behineko espetxealdiak zigor prozesu espainiarrean? Kautela neurrietan gogorrena den honen datu errealak ezagutzea ezinbestekoa dugu; hortaz, atal honetan, hurbilketa estatistiko baten bidez, zigor prozesuan ematen den joera aztertuko dugu.

---

44. Konstituzio Auzitegiaren 142/2002 epaia, ekainaren 17koa; 3.oinarri juridikoa.

Hasi aurretik, bildutako datuak errealitatearen hurbilketa bat direla zehaztu beharrean nago, dakigunez, justizia penalean epaitzen diren kasuen dimentsioa dela eta egunetik egunera aldatzen diren datuak baitira. Egingo dugun azterketak ikuspegi globala izango du, eta hori dela eta, urte bakoitzaren hasieran Barne Ministeritzak jasotzen dituen datuak hartuko ditugu oinarritzat.

Bestalde, analisi estatistikoa Estatu Espainiar osoko datuen gainekoa izango da. Garrantzitsua da hau argitzea, jakina baita 1979ko Kataluinako Autonomia Estatutuak, Espainiar Konstituzioaren marko legalean, Kataluinari espetxe-administrazioan eskuduntza betearazlea eman ziola. Hori dela eta, Generalitatearen administraziopean daude Kataluinako lurraldean dauden espetxeak eta bertako presoak. Gauzak hala, lan honetan Estatuko Administrazio Orokorraren menpe eta baita Generalitateko Administrazioaren menpe dauden datuak aztertuko ditugu, banaketarik egin gabe.

*I. Espainiar Estatuan espetxean dagoen jende kopurua, zigor prozesuan duten egoeraren arabera (2020ko urtarrilla) <sup>45</sup>*

Hasteko, ikus dezagun zenbat pertsona dauden Espainiako Estatuan espetxean, eta zein egoeratan dagoen pertsona bakoitza. Horretarako, kontuan hartu behar dugu, Estatistikako Institutuzio Nazionalaren datuen arabera, 47.100.396 miloi<sup>46</sup> pertsona bizi direla Espainian. Eskuartein dugun taula honetan, 2020ko urtarrilean zigor prozesuan pertsona bakoitzak zuen egoeraren arabera saikatzeko dira datuak.

	<b>Behin-behineko espetxealdia</b>	Zigortu edo kondenatuak	Segurtasun neurriak	Behin-behinekoekin zigortuta	GUZTIRA
Pertsonak	9363	47.698	574	734	58.369
Ehunekoa	%16,04	%81,72	% 0,98	%1,26	%100

45. Ministerio del Interior, Administración penitenciaria, estadística penitenciaria, consulta mensual. Situación procesal-penal por sexo, total nacional, enero de 2020. [online] Eskuragarri hemen: <<http://www.institucionpenitenciaria.es/web/portal/idioma/eu/administracionPenitenciaria/estadisticas.html>> Behin pertsona kopurua kontsultatuta, ehunekoen kalkulua nire kabuz egin dut.

46. INE. 2020. *Inebase / Demografía Y Población / Cifras De Población Y Censos Demográficos / Cifras De Población / Últimos Datos*. [online] Eskuragarri: <[http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica\\_C&cid=1254736176951&menu=ultiDatos&idp=1254735572981](http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176951&menu=ultiDatos&idp=1254735572981)> Espainian bizi den pertsona kopurua, 2020ko apirilaren 6ko kontsulta.




Ikusten den bezala, espetxean dauden 58.369 pertsonetatik, epaiketa baten ostean espetxe zigorra betetzen ari direnak nagusitzen dira, %81,72a izanik. Jarraian, behin-behineko espetxealdia betetzen ari direnak datoz, %16,04 direlarik. Gainerakoak gutxiengoa dira. Aztergai dugun instituzioaren aplikazioan zentratuz, epaitu eta errudun deklaratu aurretik espetxean dagoen pertsona kopurua altua dela esan genezake. Kontuan izanik behin-behineko espetxealdia azken errekurso gisa aplikatzen den neurria dela, egin dezakedan irakurketa honakoa da: espetxean dauden pertsona guztietatik halako ehuneko altua izatera iristeak ez duela salbuespenezko izaerarekin bat egiten.

Argi dago ezin dudala behin-behineko espetxealdia arau orokor gisa erabiltzen dela baieztatu, printzipio konstituzionalak urratuz, baina, objetiboki, ikus dezakegu, eskuartean ditugun datuok ez dutela salbuespenez eta subsidiarioki ezarri beharreko neurri batekin bat egiten. Kontziente izan behar dugu %16 horiek oraindik ez dutela beren burua epaiketa batean defendatzeko aukerarik izan, epaiketaren zain daudelako, eta aldi berean, errugabeak direla legearen begietan; hori horrela izanda ere, oinarritzko eskubide batez gabetzen zaie behin-behineko espetxealdiarekin. Ondorioak ziurtasunez ateratzeko, ordea, beste hainbat datu aztertu behar ditugu jarraian.

## II. Behin-behineko espetxealdian dauden pertsona kopuruaren bilakaera (2007-2020)

Behin behineko espetxealdian dagoen pertsona kopurua urteka




Zigor prozesuan behin-behineko espetxaldia dekretatzeko dagoen joera aztertzeko, ezin dugu soilik aurtengo datuetan oinarritu; beraz, azter dezagun, 2007az geroztik espainiar ordenamendu juridikoan behin-behineko espetxealdiaren aplikazioak izan duen bilakaera. 2007.urtean behin-behineko espetxealdian zeudenak, 15.020

pertsona izatetik, 2009an 17.560 pertsona izatera pasa ziren; hau da, bi urteko epean, 2.540 pertsonako goradaka egon zen. Grafikoak jasotzen dituen urteak kontuan izanda, gaur egun arte 2009.urtea izan da behin-behineko espetxealdian pertsona kopuru handiena izan duen urtea. Puntu gorena pasa ostean, 2016. urterarte beheranzko joera izan du behin-behineko espetxealdiaren aplikazioak, 2009 (17.560 pertsona) eta 2016 (7732) artean 9828 pertsonako alde dagoelarik. Azken 4 urteotan, goranzko joera nabarmena nabaritu dezakegu, eta urtez urte, pixakanaka pixkanaka, behin-behineko espetxealdia jasaten duten pertsona gehiago daude. Halaber, 2016-2020 artean, kalkulua eginez gero<sup>47</sup>, ikusiko dugu 1631 pertsonako igoera egon dela.

Ondorio orokorrez hitz egin aurretik, ordea, beharrezkoa litzateke urte horietan espetxean orokorrean zegoen jende kopurua neurtzea; azken finean, behin-behineko espetxealdiaren joera datu horiekin alderatzean, izan dituen gorakadak eta beherakadak gizartean egon den delinkuentzia mailarekiko proportzionalak diren ala ez ikusiko dugu, eta hala, hobeto aztertu ahal izango dugu aplikazioaren funtsa.

### *III. Behin-behineko espetxealdian dagoen pertsona kopurua espetxean dagoen biztanleria guztiarekin alderatuz (2007-2020)*

2007tik 2020ra alderaketa



Arestian adierazi bezala, 2007-2020 urteen bitartean behin-behineko espetxealdiak bilakaera nabarmena izan du. Bi puntu garrantzitsu azpimarratu genitzake: 2009.urtea, puntu gorena, eta 2016.urtea, puntu baxuena. Hortaz, goranzko

47. 2020ko urtarrilean 9363 pertsona zeuden behin-behineko espetxealdian, eta 2016ko urtarrilean berriz 7732. Beren arteko alde, 1631 pertsonakoa da.

joera nabarmena egon zen 2007-2009 urteetan, ondoren, asko murriztu zen behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa, 2016.urtean 2009an baina 9828 pertsona gutxiago izateraino, eta azkeneko urteetan berriro ere goranzko joera hartu du.

Urte berberak oinarri hartuta, espetxean guztira zegoen pertsona kopuruak ere antzeko joera izan duela esan genezake. 2007-2010 artean asko igo zen espetxean zegoen pertsona kopurua, baina behin-behineko espetxealdian zegoen pertsona kopuruarekin gertatu bezala, 2016. urterarte beherakada nabarmena egon zen. Horrenbestez, 2007-2016 urteen artean bi kopuruak beren artean proportzionalak zirela ikus dezakegu, honako irakurketa eginez: gizartean delitu egintzak egiteko joera igotzen zen heinean, zigor prozesuan epaileek ere behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa areagotzen zuten.

Hori hala, neurri kautelarretan gogorrena aplikatzeko joera handitzearen inguruan, zera interpretatzen dut nik, pertsonalki: jakina den moduan, gizarte batean delinkuentzia maila igotzen denean, arriskugarritasun eta segurtasun faltaren sentipena zabaltzen da, izua eta psikosia nagusituz. Horren aurrean, estatuak erantzukizun bat duenez, segurtasuna eta batez ere, lasaitasuna transmititzeko justizia sistemaren eraginkortasuna erakusteko beharra duela ulertu da. Horregatik, behin-behineko espetxealdiaren areagotzea, hots, ustez arriskutsuak diren pertsona horiek askatasunaz gabetzea, alarma soziala baretzeko tresna gisa erabili da<sup>48</sup>.

2016.urte arte, beraz, kautela neurria alarma soziala baretzeko mekanismo gisa erabili dela ondorioztatze dut, proportzionala izan delako guztira espetxean zeuden pertsonen kopuruarekiko. Gaur egun arte, ordea, aldaketa bat nabaritu dezakegu grafikoan. 2016-2020 urteen artean behin behineko espetxealdian dagoen pertsona kopuruak pixkanaka gora egin du, espetxean orokorrean dagoen pertsona kopuruak beheranzko joera izan duen bitartean.

Argiago ikusteko, erreparatu diezaiogun ondorengo taulari<sup>49</sup>, eta ikusi dezagun, espetxean dauden pertsona guztien gainean behin-behineko espetxealdian dauden pertsonen dagokien ehunekoaren aldaketa.

---

48. Mekanismo hori erabiltzearen adibide ditugu Konstituzioaz geroztik behin-behineko espetxealdiaren erregulazioak jasan dituen hainbat erreforma: 16/1980 L.O eta 10/1984 L.O.

49. Iturria: *Instituciones Penitenciarias, Estadística Penitenciaria*. Ehunekoen kalkulua nire kabuz egindakoa da.

URTEA	2016 urt.	2017 urt.	2018 urt.	2019 urt.	2020 urt.
<b>Espetxean guztira</b>	61.423	59.703	59.121	58.971	58.369
<b>Behin-behineko espetxealdian</b>	7732	8115	8477	9262	9363
<b>% BBE/Guztira</b>	%12,59	%13,59	%14,34	%15,71	%16,04

Ikusten dugunez, espetxean guztira dauden pertsona kopuruak behera egin du, eta azpimarratu nahi nuke, horien gehiengoa zigor prozesuaren ostean zigortuak izan direnek osatzen dutela. Aitzitik, behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa nabarmen hazi da azken urteotan, %12,59 batetik %16,04 batera pasaz. Lehenago taula azertu ostean ateratako ondorioak, azkarregi hartutakoak izan diren arren, azterketa guztia egin eta datu errealak ikusi ondoren berretsi egin ditzakedala uste dut. Horregatik, hainbat gauza nabarmendu nahiko nituzke, bi ikuspuntu desberdinetatik.

Batetik, gizartea osatzen duen pertsona gisa, askatasunaz gabetzeak suposatzen duen inpaktu eta eraginagatik, gehiegizkoa ikusten dut behin-behineko espetxealdian dagoen jende kopurua. Jakina da zigor prozesuan behin-behineko espetxealdia dekretatu ala ez erabakitzeke momentuan epaileak ondasun juridiko bati baina gehiagori erreparatzen diola, eta horien artean akusatuaren askatasun eskubidea sartzen dela; hau da, benetako balorazio bat egiten dela. Datu errealak ikusita, ordea, ezin dugu esan epaitu gabeak izanda askatasun eskubidea galtzen duten pertsona gutxi daudela, eta hori, kezkarria da.

Bestetik, eta oraingoan ikuspuntu juridikotik, behin-behineko espetxealdiari zilegitasuna ematen diona, besteak beste, salbuespen izaera dela nabarmendu nahiko nuke. Honen harira, gogorarazi nahi dut behin-behineko espetxealdiak jasan zuen azken erreformarekin aztergai dugun instituzioa printzipio konstituzionaletara egokitu nahi izan zela; besteak beste, Zioen Azalpenean, argi utzi nahi izan zen ordenamendu juridiko espainiarrean arau orokorra akusatuaren askatasuna zela, eta ondorioz, behin-behineko espetxealdia salbuespenezkoa zela<sup>50</sup>. Horregatik, neurri kautelar hau jasaten ari den pertsona kopurua ikusita, aplikazioaren benetako zilegitasuna zalantzan jartzera eramaten nau.

Lehenago, alarma sozialaren aitzakia zela eta behin-behineko espetxealdiaren aplikazioak goranzko joera izatea ulergarria izan zitekeen. Juridikoki, ordea, argi dago

50. 13/2003 Lege Organikoa, urriaren 24koa. Zioen Azalpena, 2.atala.

alarma soziala itzali nahia ez dela behin-behineko espetxealdia ezartzeko helburu legitimo bat, eta inondik ere ezin dela onartu zigor prozesuan kautela neurrietan gogorrenari erabilera hori ematea. 2016az geroztik, ordea, espetxean dagoen jende kopurua eta zigortuak jeitsi egin dira, eta hala ere, behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa pixkanaka igotzen ari da. Beraz, alarma sozialaren aitzakiak gaur egun ez dauka ez hanka ez bururik.

Zein da atera daitekeen ondorio argiena? zigor prozesuan behin-behineko espetxealdiaren erabileraz abusatu egiten dela, azken urteotako datuak gehiegizko aplikazioaren isla direlarik. Horrek, kautela neurrietan gogorrena denaren berezko izaeratik aldentzea eragiten du, eta ondorioz, printzipio konstituzionaletatik ere bai. Oinarrizko eskubide bat jokoan dagoela kontuan harturik, nire ustez, zigor prozesuko azken urteetako joera murriztu egin beharko litzateke.

## **B. Zuzenbide konparatua: behin-behineko espetxealdiaren aplikazioaren datuak.**

Aurreko atalean Espainiako Estatuan behin-behineko espetxealdiak duen aplikazio praktikoa aztertu dugu, eta horri esker, ondorio kezkarri batera iritsi ahal izan dugu: azken urteetan behin-behineko espetxealdian dauden pertsona kopurua igotzen ari da, askatasunaz gabetzen duen kautela neurriaren aplikazioak goranzko joera hartu duelarik.

Europara egingo dugu salto orain. Europako Kontseiluak, urteko zigor estatistiken inguruko informe bat argitaratzen du, zeinetan Europako herrialdeetan espetxean dauden pertsona kopurua, horien egoera, etabarri buruzko informazioa jasotzen den. Argitaratutako azken informearen arabera<sup>51</sup>, espetxe populazioaren gainean behin-behineko espetxealdian daudenen Europako batz bestekoa %21,9koa da. Espainiako ehuneko (%16,04), beraz, Europako batez bestekoaren azpitik dago, oraingoz. Datu positiboa izan daiteken arren, ehunekoari erreparatzea baino garrantzitsuagoa da azken urteetako joera erreparatzea, zigor prozesuan aztergai dugun neurriaren aplikazioa murriztea baita, haren izaerari jarraiki, helburua.

Hori hala izanik, Europako hanbat ordenamendu juridikoetara joko dugu, bertan behin-behineko espetxealdiak duen aplikazioa eta azken urteetako joera datu

---

51. Council Of Europe Annual Penal Statistics, 2019. *Prision Populations SPACE I-2019*. [online] Eskuragarri hemen: <[http://wp.unil.ch/space/files/2020/04/200405\\_FinalReport\\_SPACE\\_I\\_2019.pdf](http://wp.unil.ch/space/files/2020/04/200405_FinalReport_SPACE_I_2019.pdf)>. 2019ko urtarrilaren 1eko datuak.

errealen bidez ezagutzeko, eta espainiar ordenamenduarekin alderaketa bat egiteko. Azter ditzagun, beraz, Frantziako, Italiako eta Erresuma Batuko<sup>52</sup> datuak.

## I. FRANTZIA

Frantzian gaur egun 67.063.703 pertsona<sup>53</sup> bizi dira. *World Prison Brief*<sup>54</sup> datu baseak 2020ko urtarrilean jasotako datuen arabera, espetxeko biztanleria 70.651 pertsonakoa da, eta horietatik 21.075 pertsona, behin-behineko espetxealdi egoeran daudenak dira, hau da, %29,8a. Beraz, Espainiako kopurua baina altuagoa izateaz gain, Europako batez bestekoa (%21,9) gainditzen du. Hala ere, arestian esan bezala, garrantzitsuena azken urteetan izandako bilakaera ikustea da, aplikazioaren joera zein norabide hartzen ari den ikusteko.

URTEA	PERTSONAK B.B.E	% (Preso guztien gainean)
2000	16.562	% 33,9
2005	20.228	% 35,7
2010	15.226	% 25
2015	17.602	% 22,4
2020	21.075	% 29,8

Iturria: *World Prison Brief; France, pre-trial/remand prison population: trend.*

Ikusi dezakegun bezala, 2000.urteaz geroztik behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa jaitsi egin da Frantzian. 2015.urtean Europako batz bestekora hurbilduko zela ematen zuen arren, azkeneko bost urteetan berriro ere nabarmen egin du gora, %22,4 batetik %29,8ko ehunekora pasatuz. Kopuru altu horien ondorioz, Europako Kontseiluaren azken informearen arabera<sup>55</sup>, Frantzia behin-behineko espetxealdiaren ehuneko oso altua duten herrialdeen artean kokatzen da. Bilakaerari soilik erreparatuz,

52. Gaur egun Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko prozesua gauzatzen ari da. Hala ere, lan honetarako bildu ditudan informe guztiek jasotako datuak oraindik Europar Batasunaren parte zenekoak dira. Bestalde, Erresuma Batuaren barruan Ingalaterra eta Gales aztertuko ditugu soilik, Ipar Irlandak alde batetik eta Eskoziak bestetik, sistema judizial propioa baitute.

53. Institut National de la statistique et des études économiques. 2020. *Population Totale Par Sexe Et Âge Au 1er Janvier 2020, France - Bilan Démographique 2019 | Insee*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://www.insee.fr/fr/statistiques/1892086?sommaire=1912926>>. 2020ko urtarrileko datuak.

54. *World Prison Brief* online datu base bat da, mundu osoko espetxe sistemen inguruko datuak jasotzen dituena, Londresko Unibertsitateko *Institute for Crime & Justice Policy Research* erakundeak antolatua. Hemen eskuragarri: <<https://prisonstudies.org/world-prison-brief-data>>.

55. Council Of Europe Annual Penal Statistics, 2019. *Prison Populations...*, op.zit, 5.orrialdea. 2019ko urtarrilaren 1eko datuak.

Espainiarekin alderatuta<sup>56</sup>, azken urteetako joera antzekoa dela esan dezakegu: behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa areagotu egin da.

## II. ITALIA

Europako Estatistika Institutuaren arabera, Italian gaur egun 60,22 miloi pertsona bizi dira<sup>57</sup>. Espetxe populazioa 60.971 pertsonak osatzen dute, eta horietatik 18.872, behin-behineko espetxealdian daude<sup>58</sup>. Espetxe populazio guztiaren gainean, hortaz, %31ko ehunekoa hartzen dute behin-behineko espetxealdian daudenek. Frantziaren kasuan bezala, Europako batez bestekoa gainditzen du Italiak. Zenbateraino? bada, Europako ehuneko altuenetakoa duen herrialdea izateraino, Belgikarekin (%35,6), Danimarkarekin (%38,2) eta Luxenburgorekin (%41) batera, *World Prison Brief*-en datuen arabera. Honi lotuta, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak epai bat baina gehiago eman du Italiak behin-behineko espetxealdia dela eta Europar Batasuneko Giza Eskubideen Hitzarmeneko 5.artikulua urratu duelako: neurriaren gehiegizko iraupena, akusatuaen eskubideak ez bermatzea...<sup>59</sup>. Gauzak hala, zein da azken urteetako joera?

URTEA	PERTSONAK B.B.E	% x (Preso guztien gainean)
2000	23.456	% 43,4
2005	21.662	% 36,4
2010	29.986	% 43,6
2015	17.785	% 34,1
2020	18.872 <sup>60</sup>	% 31

Iturria: *World Prison Brief; Italy, pre-trial/remand prison population: trend.*

Eskuartean dugun taulan adierazi bezala, azkeneko hamarkadan behin-behineko espetxearen aplikazioa nabarmen jaitsi da Italian: %43,4tik %31raino. Oraindik Europako batez bestekora heltzeko asko falta zaion arren, beheranzko joera

56. Aurreko atalean ikusi dugu Espainian 2016-2020 artean %12,59tik %16,04ra pasa dela.

57. Eurostat, 2020. *Population And Population Change Statistics - Statistics Explained*. [online]

Eskuragarri hemen: <[http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Population\\_and\\_population\\_change\\_statistics](http://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php/Population_and_population_change_statistics)>. 2020ko urtarrileko datuak.

58. World Prison Brief. 2020ko urtarrilaren 31ko datuak.

59. Fair Trials International, 2016. *A Measure Of Last Resort? The Practice Of Pre-Trial Detention Decision Making In The EU*. [online] Eskuragarri: <<https://www.fairtrials.org/wp-content/uploads/A-Measure-of-Last-Resort-Full-Version.pdf>> ..

60. 2015. urtetik 2020. urtera behin-behineko espetxealdian dagoen jende kopurua igo egin den arren, ehunekoak behera egin du, espetxe populazioa ere hazi egin delako.

nabarmena da. Ezin dugu esan Italiako datuak Espainiakoak baina “egokiagoak” direnik, Italiako datuek bertan behin-behineko espetxealdia salbuespenezko neurria izatetik oso urrun dagoela islatzen baitute; baina, zera nabarmendu nahiko nuke: behin-behineko espetxealdia legitimatzen duten printzipio eta helburu nagusiak bermatze aldera, Italiako beheranzko joera berri ona da; ezin dugu gauza berbera esan, ordea, Espainiako datuen inguruan, goranzko joera nagusitu baita.

### III. ERRESUMA BATUA: Ingalaterra eta Gales

Erresuma Batuarekin amaituko dugu. Gales eta Ingalaterraren artean 55,98 miloi pertsonako biztanleria izatera iristen dira<sup>61</sup>. Espetxe populazioa 83.023 pertsonakoa da, behin-behineko espetxealdian daudenak 9.708 direlarik<sup>62</sup>. Lehenago erreferentzia egin diogun Europako Kontseiluaren azken informeak, zigor estatistikei buruzkoak, Erresuma Batua --Ingalaterra eta Gales-- (%11,7), Espainiarekin (%16,04) batera, behin-behineko espetxealdiaren ehuneko oso baxua duten Europako herrialdeen artean kokatzen du. Baina, aspalditik mantendu al da Europako batez bestekoaren azpitik?

URTEA	PERTSONAK B.B.E	% (Preso guztien gainean)
2000	11.433	% 17,5
2005	12.864	% 16,9
2010	13.004	% 15,3
2015	11.785	%13,7
2019 <sup>63</sup>	9.708	% 11,7

Iturria: *World Prison Brief; UK: England and Wales, pre-trial/remand prison population: trend.*

Ez dago zalantzarik. 2000.urtetik gaur egun arte Erresuma Batua<sup>64</sup> Europako batez besteakoaren azpitik mantendu da; horrez gain, behin-behineko espetxealdia ezartzen dioten pertsona kopurua jaitsi egin da, neurriaren aplikazioa nabarmen

61. Office For National Statistics. 2018. *Estimates Of The Population For The UK, England And Wales, Scotland And Northern Ireland - Office For National Statistics*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://www.ons.gov.uk/peoplepopulationandcommunity/populationandmigration/populationestimates/datasets/populationestimatesforukenglandandwalesscotlandandnorthernireland>>.

62. Government of United Kingdom. 2019. *Prison Population Figures: 2019*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://www.gov.uk/government/statistics/prison-population-figures-2019>>.

63. 2019ko abenduaren 31ean jasotako datuak dira. Beraz, 2020ko urtarilaren 1ean datu berberak zeudela suposatzen da.

64. Gales eta Ingalaterrari egiten diogu erreferentzia; Ipar Irlandako eta Eskoziako datuak, bakoitzak bere sistema judizial propioa duela gogoratu, desberdinak dira.



murriztu delarik. Gaur egun, Txekiar Errepublikarekin (%8,7), Errumaniarekin (%9,9) eta Poloniarekin (%11,4) batera behin-behineko espetxealdiaren aplikazio baxuenetakoa duen herrialdea da<sup>65</sup>. Espainiako eta Erresuma Batuko datuen konparaketa bat egiteko, azkeneko bost urteetako bilakaera hartuko dugu kontuan: lehenak, goranzko joera du; aldiz, bigarrenak, beheranzkoa. Lehena Europako batez bestekora hurbiltzen ari den bitartean, bigarrena urruntzen ari da, kautela neurriaren salbuespen izaerara gerturatuz.

### **C. Behin-behineko espetxealdia aplikatzearen ondorioak.**

#### **I. Aske geratzen direnengan duen eragina bergizarteratzera begira**

Europako herrialde gehienetan nagusitzen den zigor sistema judiziala bergizarteratzera begira eraikita dagoela ikasten dugu Zuzenbideko ikasle orok. Hala, Erromataz Zuzenbidean gailentzen zen *“ojo por ojo”* edo mendeku sistema atzean utzi zen eta, horren orde, delitugileari, kartzelarekin edo epaileak erabakitako zigorrarekin, egin zuenak gure gizartearen ongizatea eta elkarbizitza urratzen zituela ulertarazi behar zitzaiola ikusi zen, berriro ez egitea baita helburua. Horren adibide dugu Espainiar Konstituzioaren 25.2.artikulua: *“Las penas privativas de libertad y las medidas de seguridad estarán orientadas hacia la reeducación y reinserción social y no podrán consistir en trabajos forzados”*.

Erromatar garaiko sistema primitiboa gainditu zen arren, gaur egungo sistema modernoak oraindik badu mendeku kutsuak utzitako aztarna. Zergatik? delitugileari bere jarrerak elkarbizitza urratu duela ulertarazteko, bere jarrera deseraiki eta hasieratik has dadin bultzatzeko espetxea delako gure sistemak duen instrumentua. Balio al du espetxeak horretarako?

Asko dira espetxeak pertsonengan duen eragina aztertu duten lanak egin dituztenak: psikologoak, medikuak, kriminologoak, juristak... Iritzi desberdinak dauden arren, ondorio objektibo bakarra dago: espetxeak estigmatizazio negatiboa dakar, gizarteak atxikitutakoa, eta ondorioz, norberak bere buruari ezarritakoa. Horrenbestez, bergizarteratze fasea hasterako momentuan, espetxe zigorra bete berri duenak oztopo handi batekin egiten du topo: espetxean egon izana berarekin.

---

65. *World Prison Brief*. 2020ko urtarrileko eta otsaileko datuak.

Espetxean denbora igarotzeaz ari garela, eta gure lanari jarraiki, kontuan izan behar dugu bergizarteratzea ez dela espetxe zigorra bete dutenei dagokien erronka soilik: behin-behineko espetxealdia igaro ostean aske geratu den pertsonak ere, nahiz eta kondenatua ez izan, estigmatizazio bat jasaten du, arestian aipatu dugun moduan, espetxean egon izanak berak dakarrelako ondorio negatiboa.

Behin-behineko espetxealdia pasa ostean aske geratzen diren pertsonak abiapuntutzat hartuta, azter dezagun zein eragin izan dezakeen espetxean pasatako denborak. Hala, DE LA ROSA CORTINA autorearen hitzetan, ezin dugu albo batera utzi espetxean sartzeak behin-behineko egoeran dagoen pertsona batengan daukan estigmatizazioa. Neurri honek ohore, intimitate eta irudi eskubidean eragin oso sakonak izan ditzake, eta bigarren maila batean, baita familia bizitzan edo lan eskubidean<sup>66</sup>. Esaterako, pertsona hori espetxetik atera ostean lan bila hasten bada, pentsatzekoa da espetxean egote soilak ohorean eta irudian eragingo diola, eta beraz, sektore pribatuan bereziki, lana lortzeko zailtasunak izango dituela, nahiz eta profesionalki pertsona hori erabat prestatua egon.

Behin eta berriz aipatzen ari garen estigmatizazioak, GONZÁLEZ SÁNCHEZ doktoreak dioten moduan, bi alde ditu: alde batetik, estigmatizazio psikologikoa eta indibiduala, norberak bere buruari ezartzen diona, eta bestetik, estigmatizazio soziala. Bigarren hau ez da indibiduora mugatzen, baizik eta bere inguru osora<sup>67</sup>. Horrenbestez, bere estatus sozialetik hasita, bere familia bizitza eta lan arloraino iritsiko da eragina, egunerokoa markatzeraino. Hala, behin-behineko espetxealdian egon ondoren deliturik egin ez duela frogatu eta epaitu arren, estatuz soziala nekez aldatuko du bizitza osoan, gizartearen begietan espetxean egondako pertsona bat izango baita.

Eta, zer dio jurisprudentziak honen inguruan?

Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 3121/2019 epaiean, 2019ko urriaren 10ekoan, hala zioen: *“Se han identificado los diversos daños que puede comportar la prisión indebida: <<a cualquiera le supone un grave perjuicio moral el consiguiente desprestigio social y la ruptura con el entorno que la prisión comporta, además de la angustia, ansiedad, inseguridad, inquietud, frustración, fastidio, irritación o temor que suele conllevar>>. Aurrerago ikusiko dugu “prisión*

66. DE LA ROSA CORTINA, J.M., *Las medidas cautelares...*, op.zit, 69.orrialdea.

67. GONZÁLEZ SÁNCHEZ, I., 2009. Abolicionismo, cárceles e inseguridad ciudadana. Crítica, alternativas y tendencia. *Revista de derecho penal y criminología*, [online] (1.zenbakia), 291-315. orrialdeak.

*indebida*” delakoa, baina hemen, garrantzitsua da zera azpimarratzea: Auzitegi Gorenak aipatzen dituen efektu negatibo guztiak (ohorea galtzea, antsietatea, frustrazioa, beldurra...) ez dira espetxe zigorra betetzen ari diren pertsonengana mugatzen, baizik eta espetxean denbora bat pasatzen duten pertsona oroengana.

Horregatik, ezin dugu ahaztu bergizarteratze kontzeptuaz ari garenean behin-behineko espetxealdian egon direnak sartu behar ditugula, nahiz eta gero aske geratu. Hori horrela, eta pairatzen dituzten eraginak ikusirik, zein eskubide eta berme eskaintzen dizkie Espainiako sistema judizialak kautela neurri gisa askatasunaz gabetu ondoren erantzukizun penalik gabe aske geratzen diren pertsoneri? Hurrengo atalean aztertuko dugu.

## II. Espetxealdia bidegabea: ondare erantzukizuna eta indemnizazio eskubidea

Botere Judizialaren Lege Organikoaren V. Tituluak Justizia administrazioaren funtzionamenduagatik estatuak duen ondare erantzukizuna arautzen du. Bertan kokatzen da atal honetan aztergai dugun auzia, zehazki, 294.artikuluaren. Hala dio lehen atalak: *“Tendrán derecho a indemnización quienes, después de haber sufrido prisión preventiva, sean absueltos por inexistencia del hecho imputado o por esta misma causa haya sido dictado auto de sobreseimiento libre, siempre que se le hayan irrogado perjuicios”*.

Artikuluari jarraiki, bi baldintza edo supostu bete behar dira indemnizazioa eskuratu ahal izateko: lehenik, behin-behineko espetxealdian egon izana, eta bigarrenik, egotzitako ekintza existitu ez izana. Bigarren baldintza honetan interpretazio edo ulermen arazoak sortu daitezke, eta beraz, MANZANARES SAMANIEGO autoreak argi uzten digu hasiera batean egotzitako ekintza ez existitzeak ez duela esan nahi hasierako erabakia okerra zela, ezta Justizia Administrazioaren funtzionamendua anormala izan zela ere. Horregatik litzateke posible, hasiera batean hartutako neurria egokia eta zuzenbidearen araberakoa izatea, eta aldi berean, beranduago indemnizagarria. Baina zein supostutan ez da funtzionamendu anormalik edo errorerik egongo? Aipatu berri dugun autoreak ematen digu adibide garbia: *“...cuando se acuerde la prisión provisional de una persona contra la que existan indicios sólidos de su autoría en un asesinato y no haya otro modo eficaz de evitar su probable huida. Entonces la medida sería, no ya defendible,*

*sino obligada conforme a la situación del momento, con independencia absoluta de lo que pueda ocurrir más tarde”* <sup>68</sup>.

Arazo hau argitzeko, Konstituzio Auzitegiak espetxealdi bidegabearen kontzeptua aipatzen du. Ondoren aztertuko dugun Konstituzioa Auzitegiaren 85/2019 epaiean<sup>69</sup>, zehazki 3.oinarri juridikoan, argi utzi nahi izan zen epaiketa baten amaieran preso egon dena ez kondendatzeak ez duela hasieran kautela neurri gisa hartutako erabakiaren zilegitasunean eragiten. Horregatik, *“prisión preventiva indebida”* edo *“injusta”* gisa definitzen diren kasuetan ez da zalantzan jartzen horiek legearen arabekoak direla eta beraz, errore judizialarekin ez dute zerikusirik.

Esan bezala, aipatutako interpretazio arazoak ez ziren hor geratu. 2018ko irailaren 8an konstituziokontrako arazoa<sup>70</sup> tarteratu zen Konstituzio Auzitegiaren aurrean, lantzen ari garen arauaren erredakzioak Konstituzioan jasotako askatasun pertsonala (17.artikulua), berdintasun printzipioa (14.artikulua) eta errugabetasun presuntzioa (24.2 artikulua) urratzen zituela oinarri hartuz. Arazoa aurkeztu zutenen hitzetan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 294.1 artikulua aipatutako oinarrizko eskubideen aurkakoa zen *“por inexistencia del hecho imputado”* y *“por esta misma causa”* pasarteetan. Autoaren esanetan, behin-behineko espetxealdiagatik indemnizazioa jasotzeko eskubideak banaketa bat jasotzen zuen erredakzio horrekin, pertsona batzuk eskubide horretaz pribatuz. Zehazki hala dio autoak : *“puede dejar fuera otros que debieran serlo con fundamento en las exigencias constitucionales para privar de libertad cautelarmente a una persona (art. 17 CE), introduciendo diferencias irrazonables de trato por las razones de la absolución (art. 14 CE) que irremediablemente dejan latentes dudas sobre la inocencia del sujeto no condenado en el proceso penal (art. 24.2 CE)”*. Beraz, indemnizazio eskubidea soilik egotzitako ekintzak existitu ez izanagatik aske geratzen diren pertsonen dutela uler zitekeen.

2019ko ekainaren 19ean, Konstituzio Auzitegiak konstituziokontrakoak eta beraz deusezak deklaratu zituen *“por inexistencia del hecho imputado”* eta *“por esta misma causa”* pasarteak, eta artikulua erredakzio egokia honakoak izan beharko lukela adierazi zuen: *“Tendrán derecho a indemnización quienes, después de haber sufrido prisión preventiva, sean absueltos o haya sido dictado auto de sobreseimiento libre, siempre que se le hayan irrogado perjuicios”*. Zer adierazi nahi izan zuen honekin?

---

68. MANZANARES SAMANIEGO, J.L., 2011. La responsabilidad patrimonial por prisión provisional. *Diario La Ley*, (7761.zenbakia).

69. Konstituzio Auzitegiaren 85/2019 epaia, ekainaren 19koa (*Cuestión interna de inconstitucionalidad* )

70. Konstituzio Auzitegiaren 79/2018 autoa, uztailaren 17koa.

bada, behin-behineko espetxealdian egon ostean aske geratzen diren presoek indemnizazio eskubidea dutela, aske geratu izanaren arrazoia kontuan hartu gabe.

294.artikuluaren lehen atala ulertuta, eta argi geratuta, indemnizazio eskubidea noraino zabaltzen den, ikus dezagun nola kalkulatu den indemnizazio hori. Artikuluaren bigarren atalak hala dio: *“La cuantía de la indemnización se fijará en función del tiempo de privación de libertad y de las consecuencias personales y familiares que se hayan producido”*. Beraz, espainiar ordenamendu juridikoan hiru dira kontuan hartuko diren faktoreak: behin-behineko espetxealdian igarotako denbora, ondorio pertsonalak eta azkenik, familian eragindako ondorioak.

Zuzenbidean beti gertatu ohi den moduan, kalte moralengatiko indemnizazioa zehaztea ez da gauza erraza. Horregatik, Auzitegi Gorenak urteetan mantendu dituen irizpideei erreparatu behar diegu. 1999ko martxoaren 29an emandako epaiean<sup>71</sup>, Auzitegi Gorenak hala zioen: *“la prisión comporta, en cualquier caso, desprestigio social y ruptura con el entorno, además de angustia, ansiedad, inseguridad, inquietud, frustración, fastidio, irritación o temor, aunque, según las circunstancias de edad, salud, conducta cívica, hechos imputados, antecedentes penales o carcelarios, posibilidad o no de rehabilitar la honorabilidad perdida, mayor o menor probabilidad de alcanzar el olvido social del hecho, huella dejada en la personalidad o conducta del que la ha padecido, su incidencia no es la misma en todas las personas y ha de reflejarse en la compensación económica del perjuicio moral”*. Baieztapen hauetatik ondorioztatzen dugu, egozten den delitu mota, pertsonak pairatu duena, familiako egoera, etabar ezin direla ahaztu kalkulua egiterako orduan, eta hortaz, kasuan kasuko testuinguruari eta ezaugarriei erreparatu behar zaiela.

Behin-behineko espetxealdiak sortutako kalte moralak frogatzeko kasu bakoitzean eman daitezkeen gehigarriekin aztertu behar dira. Jar dezagun adibide bat: demagun, pertsona bat behin-behineko espetxealdian zegoela eta bere kasuak komunikabideen bidez gizartean oihartzun handia izan zuela. Pentsa pertsona honek negozio pribatu bat zuela. Aske geratu arren, kasua mediatikoa izateak ohore eta irudi eskubidean kalte larriak eragingo dizkio, eta beraz, espetxean egon izanak berak dakartzan kalte moralez gain, jardun profesionalean horrek eragingo dizkion ondorio negatiboak gehitu behar zaizkio, pentsatzekoa baita, bere negozioan bezeroen aldetik galera handia izango duela. Horrenbestez, indemnizazioaren kalkulurako, kontuan hartu beharko dira halako ezaugarriak.

---

71. Auzitegi Gorenaren epaia, 1999ko martxoaren 29koa (8172/1994 errekurtsua).

### III. KAUTELA NEURRI ALTERNATIBOAK

#### A. Ba al dago kautela neurri alternatiborik espainiar ordenamenduan?

Orain arte behin-behineko espetxealdiak espainiar ordenamenduan duen erregulazioa eta aplikazioa aztertu dugu. Atal teorikoarekin, azken errekurtsio gisa aplikatzen den neurria dela ikusi dugu, eta beraz, nahi den helburua lortzeko beste kautela neurri arinagorik ezarri ezin denean aplikatzen dela<sup>72</sup>. Atal praktikoa, berriz, azken urteetan neurriaren aplikazioa areagotzen ari dela islatzen duten datuak jaso ditugu. Gauzak hala, oinarrizko eskubide batez gabetzea dakarren neurriaren gehiegizko aplikazioa saihesteko, ba al dago alternatibarik espainiar ordenamenduan?

Behin-behineko espetxealdiaren aurrean, helburu berbera lortzeko<sup>73</sup> ordenamenduak aurreikusten duen neurri alternatibo bakarra behin-behineko askatasuna da. Erabateko askatasunetik aldentzen da, autoritate judizialen menpe gelditzen baita akusatua. Prozedura Kriminaleko Legearen 529 eta 530. artikuluek, behin-behineko askatasuna betetzeko pare bat modu aurreikusten dituzte:

- ➔ Lehenik, epaileak akusatuari behin-behineko askatasunean dagoen bitartean fidantza bat ordaintzea ezarri diezaioke: fidantzapeko askatasuna.
- ➔ Bigarrenik, fidantza ezarrita izan edo ez, epaileak akusatuak behin-behineko askatasunean dagoen bitartean autoritate judizialen aurrean egin beharko dituen agerraldiak zehaztuko ditu (*apud acta*): zein egunetan, zenbat aldiz...<sup>74</sup> Agerraldia bermatzeko, pasaporteak kendu diezaioke.

Arestian behin-behineko askatasuna kautela neurri alternatibo bakarra dela esan dugun arren, ñabardura bat egin beharrean gaude. Prozedura Kriminaleko Legearen 544 *bis* eta 544 *ter* artikuluetan leku jakin batera joan edo egoteko debekua eta pertsona jakin bategana hurbiltzeko edo harekin komunikatzeko debekua dakarten neurriak jasotzen dira. Neurri kautelar hauek, ordea, soilik delitu konkretu batzuen kasuan hartzen ditu epaileak<sup>75</sup>. Hain justu, egoera zehatz batzuetara mugatzen denez

72. Prozedura Kriminaleko Legeko 503.2 artikulua.

73. Zigor prozesuaren eraginkortasunerako, akusatua epailetan agertu dadila, besteak beste.

74. Honen harira, BARONA VILAR autoreak dio agerraldien maiztasuna egintzen larritasunaren arabera, akusatuaren aurrekariaren eta ezaugarri pertsonalen arabera eta bizi den lekuaren eta epaitegien arteko komunikatzeko erreztasunaren arabera finkatu beharko litzatekela. Barona Vilar, S., 1988. *Prisión Provisional Y Medidas Alternativas*. Bartzelona: Bosch, 223. orrialdea.

75. Askatasun sexualaren eta osotasun fisikoaren aurkako delituak; etxeko indarkeriaren biktimak babesteko neurriak dira. Ikus Prozedura Kriminaleko 544 *bis* eta 544 *ter* artikulua.

horien aplikazioa, ezin dugu esan behin-behineko espetxealdiaren alternatiba direnik. Gauza bera gertatzen da, gaixotasun larria dela eta behin-behineko espetxealdia eten eta akusatua etxean betearazteko hartzen diren neurriekin, edota, desintoxikazio prozesuan daudenez behin-behineko espetxealdia zentro berezi batean betetzeko hartzen diren neurriekin<sup>76</sup>: ez dira arau orokorrez hartzen diren neurri alternatiboak, baizik eta egoera jakin batzuetan bakarrik baimentzen direnak; soilik behar egoerataraz lotuta daudenez, ezin ditugu neurri alternatibo gisa identifikatu.

Hori hala, honakoa da egoera: behin-behineko espetxealdiaren alternatiba behin-behineko askatasuna da, ez dago besterik. Aukerak, beraz, oso murriztak dira eta benetako gabezia nabarmentzen da espainiar ordenamenduan. Bestalde, komenigarria litzateke, zigor prozesuan epaileek bi kautela neurrien artean zeinen aldeko joera duten zehaztea. Delitu arinagoetan, alternatiba gisa akusatua behin-behineko askatasunaren menpe egoteko aukera handiagoa du; larriagoak diren kasuetan, ordea, behin-behineko espetxealdia ezartzeko joera dago.

Illo beretik, azpimarragarria da epaileek ez dutela behin-behineko espetxealdiaren alternatiben eraginkortasunarengan konfiantza handirik<sup>77</sup>. *Asociación Pro Derechos Humanos de España* erakundeak, 2015ean behin-behineko espetxealdiaren inguruan egindako ikerketa batean, hainbat abokatu eta magistraturen iritzia jaso zituen. Zigor prozesuan kautela neurrietan gogorrenaren aplikazioaz eta haren alternatibez galdetu zitzaizenean, iritzia ia bateratua izan zen: orokorrean, epaileek ez dute konfiantza eta segurtasunik neurri alternatiboetan, eta, beraz, delituak larritasun minimo bat duen momentuan behin-behineko espetxealdiaren aldeko jarrera dago, ez baita uste, neurri alternatiboek (behin-behineko askatasuna eta hura betetzeko moduak) ihes egiteko arriskua saihestu dezaketenik<sup>78</sup>.

Horrenbestez, zigor prozesuan bermatu nahi diren helburuak lortzeko behin-behineko askatasunarengan konfiantzarik ez badago --delituak larritasun minimo bat duenean behintzat--, espainiar ordenamenduak ematen duen alternatiba bakarra honakoa da: behin-behineko espetxealdia, eta beraz, askatasunaz gabetzea. Pertsonalki, neurri alternatiboak proposatuko<sup>79</sup> balira, behin-behineko espetxealdiaren

---

76. Behin-behineko espetxealdi arinduari erreferentzia egiten dioten supostuak dira, Prozedura Kriminaleko Legeko 508.artikuluan arautuak.

77. Fair Trials International, 2016. *A Measure Of Last ...*, op.zit, 74.orrialdea.

78. Asociación Pro Derechos Humanos de España, 2015. *La Práctica De La Prisión Provisional En España. Informe De Investigación*. [online], 48.orrialdea.

79. Proposatzeaz ari garela, Espainiako Kongresuan Euskal Talde Parlamentarioak lege saiakera bat egin zuen 1996ko ekainaren 10eko Lege Organikoa, tutela kautelar penalari buruzkoa, aurkeztean. Bertan etxean bete beharreko atzipenaldia eta behin-behineko espetxealdi arindua arautzen ziren benetako alternatiba gisa.

aplikazioak behera egingo lukeela esango nuke; gaur egun espainiar ordenamenduan neurri alternatiboen material dagoen gabezia nabariak, ordea, kontrako efektua sortzen du.

## **B. Zuzenbide konparatua: neurri alternatiboak.**

Lehenago, behin-behineko espetxealdiaren inguruan Frantziako, Italiako eta Erresuma Batuko<sup>80</sup> datuak jaso ditugu, bertan daukan aplikazioa ezagutzeko. Aldiz, atal honetan, hiru herrialde horietan behin-behineko espetxealdiaren aurrean kautela neurri alternatiborik dagoen ikusiko dugu, ikuspegi orokor batetik.

### **I. FRANTZIA**

Frantzian, ikusi bezala, espetxe populazioaren %29,8a behin-behineko espetxealdian daudenek osatzen dute. Neurria aplikatzeko azken urteetako joera goranzkoa dela ikusirik, interesgarria litzateke joera horri buelta emateko neurri alternatiboak falta diren ikustea, espainiar ordenamenduaren moduan, edota izatez frantziar ordenamenduan nahikoa instrumentu dauden.

Bada, *Code de Procédure Pénale* deritzon; hots, zigor prozedura arautzen duen kodean, behin-behineko espetxealdia dekretatu ordez hartu daitezkeen 17 neurri alternatibo jasotzen dira, 137.artikulutik 14.artikulura. Neurriak zein diren aipatu aurretik, *Code de Procédure Pénale*-ko 140.artikuluak eta Prozedura Kriminaleko Legearen 503.2 artikulua duten antzekotasuna azpimarratu nahiko nuke: arau frantsesaren arabera, soilik posible izango da behin-behineko espetxealdia dekretatzea legeak jasotzen dituen helburuak lortzeko neurri bakarra denean; hau da, kontrol judizialaren menpe egotearekin edo zaintza elektronikoa duen etxean bete beharreko atzipenaldiarekin nahikoa ez denean<sup>81</sup>. Beraz, espainiar ordenamenduan bezala, azken errekurso gisa aplikatzeko aurreikusten da, beste neurri alternatiborik egon ezean.

Esan berri dugun moduan, *Code de Procédure Pénale*-n neurri alternatibo asko jasotzen dira. Horien funtzionamendua ulertzeko, 137.artikulura jo behar dugu: arau

---

80. Gogoratu behar dugu Erresuma Batuekin Ingalaterra eta Gales bakarrik aztertuko ditugula, Ipar Irlandak, alde batetik, eta Eskoziak, bestetik, beren sistema judizial propioa dutelako.

81. *Code de Procédure Pénale*, 140.artikulua: "La détention provisoire ne peut être ordonnée ou prolongée que s'il est démontré, au regard des éléments précis et circonstanciés résultant de la procédure, qu'elle constitue l'unique moyen de parvenir à l'un ou plusieurs des objectifs suivants et que ceux-ci ne sauraient être atteints en cas de placement sous contrôle judiciaire ou d'assignation à résidence avec surveillance électronique"



orokor gisa, akusatu oro, errugabea den bitartean, aske egongo da. Hala ere, kautela neurri gisa kontrol judiziala dakarten hainbat obligazio ezarri diezazkioke epaileak akusatuari, eta hauek nahikoa ez direnean, zaintza elektronikoa duen etxeko atxiloketa edo atzipenaldia. Aipatutako neurriek helburuak lortzeko balio ez dutenean, salbuespen gisa, behin-behineko espetxealdia dekretatuko da. Horrenbestez, lehenetsun ordena ulertuta, ikus ditzagun frantziar ordenamenduak eskaintzen dituen neurri alternatiboak:

- 1) Kontrol judiziala. 138.artikuluaren arabera arautzen da; akusatua kontrol judizialaren menpe dagoenean, 17 neurri edo obligazio ezberdin ezarri diezazkioke epaileak. Hona hemen horietako batzuk: lurralde eremu batetik atera ezin izatea eta leku batzuetara joateko debekua; etxetik edo ohiko egoitzatik epaileak ezarritako baldintzekin atera ahal izatea; edozein mugimendu egitean epaileari informatu behar izatea; epaileak zehaztutako autoritateen aurrean agertzea eta aldiro informazioa ematea; gidabaimena kentzea; epaileak zehaztutako pertsona jakin batzuekin egoteko eta komunikatzeko debekua; fidantza bat emateko obligazioa; jarduera profesional jakin batzuk burutzeko debekua; adin txikikoekin kontaktua dakarten jarduerak ez burutzea; armak izateko debekua; etabar<sup>82</sup>. *Fair Trial Internationals* erakundeak egindako ikerketa baten arabera, kontrol judizialaren arazo nagusietako bat zera da: ez dago denbora mugarik obligazio horietarako<sup>83</sup>.
- 2) Etxeko atxiloketa edo atzipenaldia, zaintza elektronikoarekin<sup>84</sup>. *Code de Procédure Pénale*ko 142-5.artikuluaren arabera, akusatuari gutxienez 2 urteko zigorra dakarren delitua egotzi behar zaio neurri hau hartu ahal izateko. Zertan datza neurria? bada, akusatuak epaileak zehaztutako etxean edo erresidentzian egon behar du eta soilik epaileak zehaztutako arrazoiengatik atera ahal izango da.

Beraz, behin-behineko espetxealdia dekretatu aurretik hainbeste aukera egonik, zergatik ematen da halako erabilera abusiboa frantziar ordenamenduan? Lehenago aipatutako ikerketaren arabera, praktikan, zerrendatu ditugun neurriak ez dira behin-behineko espetxealdiaren neurri alternatiboak, baizik eta askatasunaren

---

82. *Code de Procédure Pénale*; 138.artikulua.

83. Fair Trials International, 2013. *Pre-Trial Detention In France*. [online] Eskuragarri: <<https://www.fairtrials.org/country/france>>. 5.orrialdea.

84. *Décret n° 2010-355 du 1er avril 2010 relatif à l'assignation à résidence avec surveillance électronique et à la protection des victimes de violences au sein du couple*.

alternatibak. Horregatik, kontrol judizialaren edo etxeko atxiloketaren erabilerak ez du behin-behineko espetxealdian dauden pertsona kopuruan hainbeste eragiten<sup>85</sup>.

## II. ITALIA

Italian behin-behineko espetxealdian dauden pertsonen espetxe populazio osoaren gain hartzen duten portzentaia (%31) Europako altuenetakoa da. Datuak ikusita, pentsa genezake kautela neurri alternatiboetan hutsune handia dagoela, eta beraz, behin-behineko espetxealdiak aplikazio handia daukala; aitzitik, jarraian, italiar ordenamenduan Espainian baina alternatiba gehiago daudela ikusiko dugu.

*Codice di Procedura Penale* (1988) legeak arautzen du italiar zigor prozesuaren nondik norakoak. Kautela neurrien harira, honakoa jasotzen du 272.artikuluan: legean jasotako kautela neurrien bidez soilik izango da posible pertsonak askatasunaz gabetzea<sup>86</sup>. Espainian bezala, kautela neurria proportzionaltasun printzipioa kontuan hartuz hautatuko da. Hala, behin-behineko espetxealdia hartu aurretik, beste hainbat aukera jasotzen ditu kode italiarrak eta bi multzotan banatzen dira:

- 1) Neurri hertsatzaileak (*misure coercitive*)<sup>87</sup>. Gutxienez 3 urteko espetxe zigorra dakarren delitua egotzi behar zaio akusatuari neurri hauek aplikatu ahal izateko. Besteak beste, honakoak dira: atzerriratzeko debekua (281.artikulua), polizia judizialaren aurrean aurkeztu beharra (282.artikulua), familiaren etxea uzteko obligazioa (282-bis artikulua), biktima ibiltzen den ohiko lekuetara joateko debekua (282-ter artikulua), leku batean gelditzeko obligazioa edo leku batean bizitzeko debekua (283.artikulua), etxeko atxiloketa edo atzipenaldia (284.artikulua). Neurri hertsatzaileen barruan sartzen da behin-behineko espetxealdia, 285.artikuluan arautzen delarik.
- 2) Neurri gaitasungabetzaileak (*misure interdittive*)<sup>88</sup>. Honakoak dira: guraso ahalaren egikaritzea (288.artikulua), zerbitzu publikoko kargua etetea (289.artikulua), administrazio publikoarekin kontratatze behin-behineko debekua (289-bis artikulua), jardun profesional eta komertzialen behin-behineko debekua (290.artikulua).

---

85. Fair Trials International, 2013. *Pre trial detention in...*, op.zit, 6.orrialdea.

86. *Codeci di Procedura Penale*, 272.artikulua: "le libertà della persona possono essere limitate con misure cautelari soltanto a norma delle disposizioni del presente titolo".

87. *Codeci di Procedura Penale*, Libro IV, Titolo I, Capo II.

88. *Codeci di Procedura Penale*, Libro IV, Titolo I, Capo III.

Hortaz, argi dago italiar ordenamenduan behin-behineko espetxearen neurri alternatiboak badirela, eta ez dagoela gabeziarik. Hala ere, *Fair Trials International* erakundeak egindako ikerketa baten esanetan<sup>89</sup>, epaile eta fiskalek ez dute neurri alternatiboan eraginkortasunean sinisten, eta beraz, ez zaie erabilera handirik ematen. Hala, errazago uler genezake italian behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa hain ohikoa izatea, nahiz eta neurri alternatiboak egon.

### III. ERRESUMA BATUA: Ingalaterra eta Gales

Erresuma Batua aztergai izan ditugun gainerako herrialdeengandik ezberdindu beharrean gaude, jakina baita, ingelesek *common law* sistema jarraitzen dutela. Sistema honen oinarria epaiketetan edo jurisprudenzian dago, beraz, legeetatik hasi beharrean praktika hartzen dute abiapuntutzat. Herrialde anglosajoiak ez zuten Europako herrialde gehienek egin zuten kodifikazio prozesua burutu, eta hori dela eta, Ingalaterran ez dago Zigor Koderik, ezta zigor prozesua erregulatzen duen koderik ere. Hala ere, azken urteetan legegileak arau idatziak egiteko joera areagotzen ari da, horren adibide delarik *Criminal Procedure Rules* delakoa<sup>90</sup>.

Behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa, ikusi dugunez, Europako baxuenetakoa da Ingalaterran eta Galesen (%11,7). Honen arrazoietakoa bat, neurri alternatiboan erabilera zabala izan daiteke, epaileek teknologia eta fidantza bezelako baliabideez baliatzeko joera baitute, delitu bat egozten zaien pertsonen gehiegarri epaiketa aurretik askatasunaz gabetzea saiesteko.

Halaber, Ingalaterran eta Galesen *prima facie* fidantzapeko askatasunerako eskubidea dauka akusatu orok. Horrenbestez, epaileak hori ukatzekotan, arrazoitu edo motibatu egin behar du<sup>91</sup>. Hala ere, aipagarria da fidantza baten baldintzarekin ezartzen den “behin-behineko askatasunean” konfiantza galtzen ari dela, ez baita uste behar den bezela betetzen direnik baldintzak<sup>92</sup>.

---

89. Fair Trials International, 2016. *A Measure of last...*, op.zit, 62.orrialdea.

90. GASCÓN INCHAUSTI, F., 2011. Características de los grandes sistemas de investigación penal del derecho comparado. *Cuadernos Digitales de Formación, Instrucción penal en el Derecho comparado*. [online] Universidad Complutense de Madrid, 5.orrialdea.

91. CAPE, E. and SMITH, T; 2016. *The Practice Of Pre-Trial Detention In England And Wales: Research Report*. [online] Bristol, United Kingdom: Centre for Legal Reseach, University of the West of England, 81.orrialdea.

92. Fair Trials International, 2016. *A Measure of Last...*, op.zit, 50.orrialdea.

### C. Zer dio Europak behin-behineko espetxealdiaren eta kautela neurri alternatiboaren aplikazioaren inguruan?

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak pertsona orori askatasun eskubidea aitortzen dio 5.artikuluaren. Askatasun eskubidea, ordea, ez da eskubide absolutua; horregatik, Konstituzio Espainiarrak egiten duen moduan, legeak araututako kasuetan, Hitzarmenak askatasunaz gabetzeko aukera dagoela jasotzen du. Hala, 5.1.c) atalean behin-behineko espetxealdiaren supostua arautzen da. Era berean, 5.3 atalak behin-behineko espetxealdian dagoen pertsonari bermatu beharreko eskubideak arautzen ditu. Artikulu honen harira, asko dira Europako Giza Eskubideen Auzitegiak eman dituen epaiak. Ikus ditzagun horietako batzuk.

2006ko maiatzaren 4ean, *Ambruszkiewicz v Poland*<sup>93</sup> kasuan, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak pertsona bat askatasunez gabetzeak zuen larritasuna azpimarratu nahi izan zuen. Neurriaren larritasuna zela eta, behin-behineko espetxealdia ezartzeko lehenik neurri arinagoak aplikatzea aztertu behar zela adierazi zuen; interes publikoa babesteko neurri alternatiboak nahikoa ez zirela frogatzen zenean bakarrik ikusi zuen posible Auzitegiak behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa. Halaber, *Ladent v. Poland*<sup>94</sup> epaian, proportzionaltasun printzipioaren berebiziko garrantzia azpimarratu zuen Estrasburgoko Auzitegiak, autoritateei behin-behineko espetxealdia aplikatu aurretik hain gogorrek ez ziren neurriak aztertzeri dei eginez. Beraz, kasuaren eta hartzen den neurriaren larritasunaren artean oreka bat egon behar dela ondorioztatzen dugu.

Ildo beretik, behin-behineko espetxealdiaren eta neurri alternatiboaren arteko harremanetik ideia nagusi bat ateratzearren, hona hemen *Sulajaja v. Estonia*<sup>95</sup> sententzian, 64.paragrafoan jasotakoa: Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 5.3 artikulua baita, autoritateek akusatua epaiketan agertzea bermatzeko, neurri alternatiboak aplikatzeko aukera aztertzeko obligazioa dute, behin-behineko espetxealdia ezartzeko erabakia hartzeko momentuan.

Bestalde, aipatu berri dugun 5.3 artikulua, behin-behineko espetxealdian dagoen pertsona prozesuan zehar aske utzi daitekeela jasotzen du, eta era berean, askatasun hori berme baten baldintzapean izan daitekeela. Berme honen harira, zera

93. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia, 2006ko maiatzaren 4koa, *Ambruszkiewicz* Poloniaren aurka (38797/03), 31 eta 32. paragrafoak.

94. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia, 2008ko martxoaren 18koa, *Ladent* Poloniaren aurka (11036/03), 54 eta 55.paragrafoak.

95. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia, 2005eko otsailaren 15koa, *Sulajaja* Estoniaren aurka (55939/00), 64.paragrafoa.

adierazi zuen Estrasburgoko Auzitegiak *Mangouras v. Spain* auzian: “*Siempre que el peligro de fuga pueda evitarse por la fianza u otra garantía, el acusado debe ser puesto en libertad, sabiendo que si cabe esperar una pena más leve, debe tenerse en cuenta que el riesgo de fuga es más reducido*”<sup>96</sup>. Beraz, fidantzapeko askatasunarekin edo beste neurri alternatibo batekin ihes egiteko arriskua saihestu daitekeenean, akusatua aske utzi behar dela dio Europako Giza Eskubideen Auzitegiak.

Autoritateek akusatuari neurri alternatiboetan ohikoena, alegia, fidantzapeko askatasuna ukatzeko soilik lau arrazoi posible jasotzeko ditu Europako jurisprudentziak<sup>97</sup>: ihes egiteko arriskua, kasuaren ikerketa oztopatzeko arriskua, delitu berri bat burutzeko arriskua eta desordena publikoa eragiteko arriskua. Arrazoi horietako bat ematea beharrezkoa da, hortaz, fidantzapeko askatasuna ukatzeko. Hori hala, Estrasburgoko Auzitegiak *Chumacov v. Russia*<sup>98</sup> kasuan esan bezala, fidantzapeko askatasuna edo beste neurri alternatiboren bat arbitrarioki ukatzen denean Europako Giza Eskubideen Hitzarmenaren 5.3 artikulua urratzen da. Eta ez hori bakarrik; faktore konkretu batengatik, esaterako, delituaren larritasunagatik, fidantzapeko askatasuna ematea debekatzen duen legeak ere, 5.3 artikulua urratzen du (*Piruzyan v. Armenia* epaia<sup>99</sup>).

Amaitzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi 1980ko ekainaren 27an Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak argitaratutako (80) 11 Gomendioa. Bertan, behin-behineko espetxealdiaren nondik norakoak, printzipio garrantzitsuenak (salbuespen izaera, proportzionalitatea, etab.) eta helburuak aipatzeaz gain, neurri alternatiboak jasotzen dira, behin-behineko espetxealdia saiheste aldera Estaturikideetako autoritateek kontuan hartu behar dituztenak: akusatua autoritate judizialaren aurrean agertzeko eta epaiketa ez oztopatzeko promesa, autoritate judizialek ezarritako leku jakin batean gelditzea, autoritateen baimenik gabe leku jakin batetik ez atera edo ez sartzea, autoritateei aldian-aldian informazioa ematea, pasaportea edo identifikazio dokumentuak entregatzea, fidantza edo beste segurtasun berme bat ematea, autoritateek izendatutako organismo batek akusatua zaindu eta asistentzia ematea<sup>100</sup>.

---

96. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia, 2010eko irailaren 28koa, *Mangouras* Espainiaren aurka (12050/04), 79.paragrafoa.

97. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia, 2007ko azaroaren 29koa, *Tamamboga* eta *Gül* Turkiaren aurka (1636/02), 35. paragrafoa.

98. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia, 2012ko apirilaren 24koa, *Chumakov* Errusiaren aurka (41794/04), 163-166 paragrafoak.

99. Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia, 2012ko ekainaren 26koa, *Piruzyan* Armeniaren aurka (33376/07), 105. eta 106. paragrafoak.

100. Council of Europe; *Recommendation No.R (80) 11 of the Committee of Ministers to Member States concerning custody pending trial; Adopted by the Committee of Ministers on 27 June 1980 at the 321st meeting of the Ministers' Deputies.*

#### **D. Kautela neurri alternatiboen inguruko epaiak Espainian exekutatzea.**

1992an Maastricht-eko Tratatuaren onartu zenetik, Europako hiritar orok Europar Batasunean askatasunez zirkulatzeko eta bizitzeko eskubidea dauka, Europar Batasunak segurtasun, askatasun eta justizia eremu bat bermatu behar baitie hiritarrei<sup>101</sup>. Justiziaz ari garela, ezin dugu ahaztu Batasunaren barruan ordenamendu juridiko anitzek elkarbizitzeko saiakera bat egiten dutela; saiakera horretan, halaber, bateragarritasun ezari egin behar zaio aurre.

Gure gaiari helduz, argi gelditu zaigu Espainiako zigor prozesuan eta Italiako, Frantziako edo Erresuma Batuko zigor prozesuetan behin-behineko espetxealdiaren ordezkari aplikagarriak izan daitezkeen neurriak ez direla berberak, eta horien hutsunea batzuetan nabariagoa dela. Aipatu berri dugun zirkulazio askea dela eta, gaur egun, ohikoa izan daiteke pertsona bat ohiko egoitza ez duen Estaturik batean zigor prozesura lotuta egotea, akusatatu edo ikertu gisa. Beraz, posible da pertsona bat epaiketa egunera arte behin-behineko espetxealdian edo beste neurri batzuen menpe egotea, ohiko egoitza ez duen herrialde batean.

Halako arazoei irtenbide bat emateko, Europar Batasuneko lankidetzak judizialerako mekanismoak daude gaur egun, eta horren adibide dugu, 23/2014 Legea, azaroaren 20koa, Europar Batasunean zigor arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzkoa. Zioen Azalpenak dioenez, bi printzipioen baitan eraikitzen da: legedien armonizazioa eta ebazpenen elkar aitortzea. Zehazki V.Tituluan, behin-behineko espetxealdiarekiko neurri alternatiboen inguruko ebazpenak arautzen dira; alegia, ebazpen horien aintzatespena, exekuzioa, etabar beste Estaturik batean.

Baina, zein ebazpenei buruz ari gara? bada, zigor prozesuaren baitan Estaturik bateko autoritate eskudunak hartutako ebazpenez; hauen bidez, akusatuari behin-behineko espetxealdiaren ordezkari zaintza neurri bat edo gehiago ezartzen zaio (neurri alternatibo bat). Behin-behineko espetxealdiaren ordezkari zaintza neurrien elkar aitortzea Europako Kontseiluaren 2009ko urriaren 24ko 2009/829 esparru-erabakiaren ondorio zuzena izan zen, Europa mailan aldaketen oinarria izan zelarik. Esparru-erabaki honek araututako neurriekin, besteak beste, segurtasun publikoa hobetu nahi izan zen; azken finean, Estaturik batean ohiko egoitza izanda beste Estaturik bateko zigor prozesuan akusatatu izanik, akusatu, epaiketa iritsi bitartean, ohiko egoitza zuen Estaturik bateko autoritateek zaindu zezaten ahalbidetzen zuelako. Era berean,

---

101. Europar Batasuneko Tratatuaren 3.2 artikulua, Europar Batasuneko Funtzionamendurako Tratatuaren 21.1 artikulua, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 45.artikulua.

neurri alternatiboen elkar aitortzea posible eginez, Europar Batasunean askatasun eskubidea eta errugabetasun presuntzioa indartzea izan zen funtsa. Espainiaren kasuan, 23/2014 legea izan zen esparru-erabaki honen nondik norakoak jaso zituena, besteak beste.

Hala, 23/2014 Legeari esker, ohiko egoitza ez duen Estatukidean epaiketaren zain dagoen akusatuak, ezarri dioten kautela neurria ohiko egoitza duen Estatukidean bete dezake, bertako autoritateek zainduko dutelarik. Hortaz, neurri alternatiboa ezartzen dion ebazpena ohiko egoitza duen Estatura igorriko da eta bertan exekutatu ahal izango da, betiere legeak ezarritako baldintzak betetzen badira. 109.artikulutik ondorioztatzen ditugu, mekanismo honek dakartzan onurak: batetik, zigor prozesuan estatuen arteko lankidetzak jarduna hobetu eta segurtasun publikoa bermatzen da; bestetik, pertsona bat ohiko egoitza ez duen Estatukidean akusatua dagoen kasuetan, behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa saihestu eta behin-behineko askatasuna ezartzen duten ebazpenak hartzea sustatzen da.

Garrantzitsua da beste Estatukide batera igorri eta bertan onartu eta exekutatu daitezkeen ebazpenak neurri alternatibo jakin batzuen ingurukoak direla zehaztea; hau da, ezin da edozein neurri alternatiboren inguruko ebazpen igorri, baizik eta, soilik zaintza neurriari dagozkienak: leku jakin batean egoteko obligazioa eta bertatik mugitzeko debekua, aldian-aldian autoritateen aurrean agertzeko edo haiek informatzeko obligazioa, pertsona jakin batzuei hurbiltzeko edo haiekin komunikatzeko debekua, motordun ibilgailuak gidatzeko debekua, etabar (110.artikuluak, lista itxia da).

Demagun, Espainian ohiko egoitza duen pertsona bati Frantziako hainbat bitxidendatan lapurtu izana egozten zaiola. Frantziako epaitegiek behin-behineko askatasuna ezarri diote epaiketa eguna iritsi bitartean, hainbat obligaziorekin: astean behin epailearen aurrean agertu behar da eta ezin du motordun ibilgailurik gidatu. Ebazpena Espainiara igorri ahal izateko, 112.artikuluaren arabera, akusatuak exekuzio estatuan (Espainian) legezko eta ohiko egoitza izan eta bertara bueltatzea onartu behar du. Ebazpena igorri ostean, Espainian exekutatu ahal izateko, espainiar autoritateek ebazpena onartu edo aintzatetsi behar dute 20 eguneko epean (121 eta 122.artikuluak).

Azkenik, 123.artikuluari erreparatu behar diogu. Akusatuari ezarritako kautela neurri alternatiboa (zaintza-neurria) ordenamendu juridiko espainiarrarekin baterazina denean, epaileak Prozedura Kriminaleko Legaren edo zigor prozesuko beste arau

baten arabera neurria egokitu egingo du. Beraz, arazoa ordenamenduen bateraezintasuna denean, espainiar ordenamenduak bere arauen arabera egokitu beharko du neurria, baldintza batekin: ezingo da hasieran ezarritako zaintza-neurria baina gogorragoa izan.

Jarri dugun adibidearekin jarraituz, ikusita espainiar ordenamenduan motordun ibilgailuak gidatzeko debeku orokorra aurreikusten ez dela<sup>102</sup>, espainiar epaileak neurria zein modutan egokitu ahal izango den zehaztu beharko luke, teorian. Aitzitik, ikusita ordenamendu espainiarrak beste herrialde batzuetan aurreikusitako neurri alternatiboak jasotzen ez dituela, praktikan bateraezintasun arazoa etengabe sortuko dela ondorioztatu dezakegu. Zergatik bateraezintasuna? 23/2014 Legeko 123. artikulua, neurriaren egokitzapenez ari dela, hala izan behar duela dio: “... se corresponderán en la medida de lo posible con las dictadas en el Estado de emisión”. Hori hala, ikusita espainiar ordenamenduan alternatiben arloan hutsune handia dagoela, neurria, ezarri duen estatuak zehaztutako baldintzetan betetzea ia ezinezkoa izango da, baliabide falta dela eta ordenamenduen bateraezintasuna gailenduz.

## V. ONDORIOAK

Lanean zehar behin-behineko espetxealdiaren eduki teorikoa jasotzeaz gain, Espainiako ordenamendu juridikoan duen aplikazio praktikoa aztertu dugu, datu errealetatik abiatuta. Hala ohartu gara, azkeneko urteotan askatasunaz gabetzen duen neurri kautelarra hartzeko joerak gora egin duela. Joera hori murrizteko asmotan, arinagoak diren kautela neurriak aplikatzeko aukerarik ba ote dagoen ikertu ostean, Espainiako zigor prozesuan dagoen hutsunearekin egin dugu topo eta beraz, bistan geratu da kautela neurri alternatiboen materialian dagoen gabezia.

Ondorio orokorrak ateratzen ari garela, galdera bat mahaigaineratu nahiko nuke. Zergatik hainbesteko garrantzia behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa murrizteari? Nire iritziz, Zuzenbide Estatu sozial eta demokratiko batean, oinarrizko eskubideak gailendu beharko liriateke. Dakigunez, errugabetasun presuntzioak aurkakoa frogatu ezean pertsona oro errugabea dela bermatzen du; beraz, epaiketaren zain dagoen akusatua, egozten zaiona egozten zaiola, oraindik errugabea da. Honek,

---

102. Prozedura Kriminaleko Legeko 529 bis artikuluan ibilgailu motordunak gidatzeko baimena behin-behinean kentzea aurreikusten da, baina akusatuari egozten zaion delitua ibilgailuaren bidez burutu duen kasuetarako soilik. Beraz, ezin dugu behin-behineko espetxealdiaren alternatiba orokor gisa ulertu, kasu konkretu batzuetara baitago lotuta.



arrazoi gehiago ematen digu, akusatuari, ahal den neurrian, askatasun eskubidea bermatu behar zaiola pentsatzeko, nahiz eta legezketasun printzipioaren izenean ordenamenduak oinarritzko eskubide horren gabetzea ahalbidetu.

Ahal den neurrian diot, ezin baitut ukatu kasu batzuetan akusatuak zigor prozesuaren eraginkortasuna zapuzteko arriskua egon daitekeela. Errealitate horri aurre egiteko, ordea, ez dut uste behin-behineko espetxealdia denik kautela neurri eraginkor bakarra. Aztertu dudanarekin ohartu naiz, epaileek, askotan, akusatuak zigor prozesuan sor ditzakeen arriskuak ekiditeko, behin-behineko espetxean soilik sinisten dutela. Egia esan, pentsamendu edo uste horrek ez nau ustekabeen harrapatzen, bistan baita aukera edo alternatiba handirik ez dagoela.

Horrez gain, kontuan hartu behar dugu alternatibak aplikatzerako garaian epaileak legezketasun printzipioari lotuta daudela; hau da, ezin dute legean jasota ez dagoen neurririk aplikatu. Honen harira, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak behin eta berriro errepikatu du, oinarritzko eskubide bat mugatzen duen neurri orori legezketasun konstituzionala ematen dion baldintza legezko aurreikuspena dela<sup>103</sup>. Hala, jakinik behin-behineko espetxealdiaren alternatibek, neurri txikiagoan bada ere, askatasun eskubidean murrizketa bat suposatzen dutela, horien legezko aurreikuspena dela eta, hiru baldintza eskatzen ditu Konstituzioak, legezketasun printzipioarekin: lehenik, autoritate judiziala neurria aplikatzeko gaitzen duen xedapen juridiko baten existentzia; bigarrenik, xedapena lege-lerruneko araua izatea, eta hirugarrenik, legearen kalitatea, segurtasun juridikoaren berma gisa<sup>104</sup>.

Aurrekoa ulertzeko, jar dezagun adibide bat: demagun epaileak, Prozedura Kriminaleko Legean oinarrituta estafa delitua egozten zaion akusatuari fidantzapeko askatasuna ezartzen diola eta hori nahikoa ez dela uste duenez, administrazio publikoarekin kontratatzeke debekua ezartzen diola. Espainiako ordenamenduan ez dago debeku edo neurri kautelar hori jasotzen duen aurreikuspen legalik, beraz, epailea, nahiz eta behin-behineko espetxealdia ordezkatzeko duten neurri alternatiboak ezartzeko eskuduna izan, legezketasun printzipioaren menpe dago, eta soilik legeak aurreikusten dituen neurriak aplikatu ditzake. Beraz, bertatik ondorio argi bat ateratzeko: arazoa alternatiben gabezia dago, eta gabezia hori alternatiba desberdinak arautzen dituzten xedapenen existentzia eza islatzen da.

---

103. Konstituzio Auzitegiaren 52/1995 epaia, otsailaren 23koa, 4.oinarri juridikoa; 49/1999 epaia, apirilaren 5koa, 4.oinarri juridikoa;

104. Konstituzio Auzitegiaren 169/2001 epaia, abuztuaren 14koa, 6.oinarri juridikoa.

Hain justu, alternatiba horien existentzian dago gakoa. Epailleek, sortu daitezkeen arriskuak ekiditeko instrumentu edo aukera gehiago izango balituzte, agian, behin-behineko espetxealdiak “ustezko neurri eraginkor bakarra” izateari utziko lioke, eta ez litzateke ezinbestekoa izango akusatua oinarrizko eskubide batez gabetzea. Neurri alternatiboen alorrean Italiako eta Frantziako ordenamenduetan dagoen lista zabala, esaterako, Prozedura Kriminaleko Legean erreforma bat egin eta aukerak gehitzeko eredutzat har liteke. Hala ere, kontziente izan behar dugu kautela neurri alternatiboak gehitzeko erreforma ez litzatekeela arazoa konpontzeko irtenbide automatikoa izango; hau da, aukera ezberdinak egoteaz gain, ezinbestekoa litzateke horien eraginkortasunean sinistea, edo behintzat, konfiantza puntu bat ematea.

Erreformaren lehenengo pausua, ordea, ez dut uste kautela neurri alternatibo berriak “asmatu” eta legegileak gehitzean datzanik. Lehenik, espainiar ordenamenduan jada jasota dauden xedapenei begiratu beharko genieke. Hasteko, Prozedura Kriminaleko Legeko 508.1 artikuluan “behin-behineko espetxealdi arindua” bezala kalifikatzen dena jasotzen da, eta kautela neurria akusatuaren etxean (zaintzapean) betetzean datza. Zein da arazoa? gaixotasun larria duten pertsonen soilik aplikatzen zaiela. Kasu hau supostu guztietara zabalduko balitz, benetako kautela neurri alternatiboa izango litzateke, “etxeko atxiloketa edo atzipenaldia”, Frantziako eta Italiako ordenamenduetan jasotzen den moduan.

Era berean, kontuan hartu behar dugu Zigor Kodean “une-oroکو lokalizazioa” arautzen dela, tresna telematikoen zaintzapean betetzen dena. Aitzitik, zigor gisa aurreikusten du ordenamenduak, eta ez neurri kautelar gisa. Arestian aipatu dugun kasuaren antzera, zergatik ez da zigorra izateaz gain, behin-behineko espetxealdiaren alternatiba gisa arautzen Prozedura Kriminaleko Legean? Kautela neurria izango balitz, gaur egungo teknologiari esker, akusatua uneoro non dagoen jakingo litzateke, eta honek, askatasun eskubidean murrizketa handia suposatzen duen arren, ez du oinarrizko eskubide batez guztiz gabetzen, behin-behineko espetxealdiak ez bezala. Nire iritziz, uneoro non dagoen jakite horrek zigor prozesuaren funtzionamendua bermatuko luke, eta horri esker, baliteke epailleek neurri alternatibo arinagoen eraginkortasunean sinistea.

Gauza bera gertatzen da Prozedura Kriminaleko Legeko 544 *bis* eta 544 *ter* artikuluetan aurreikusten diren neurriekin. Lanean lehenago esan bezala, etxeko indarkeria jasaten duten pertsonak eta Zigor Kodeko 57.artikuluko delituen biktimak babesteko neurriak dira: pertsona batengana hurbildu eta harekin komunikatzeko

debekua, leku jakin batean egon eta bertatik ateratzeko debekua, leku jakin batera joateko debekua...; azkeneko biak, hau da, askatasunez mugitzeko eskubideari eragiten diotenak, motordun ibilgailuak erabiltzeko debekuarekin batera, edozein kasutan aplikagarriak izango balira, benetako neurri alternatibo bezela ulertuko lirateke. Neurri hauekin, akusatuak egin ditzakeen mugimenduak autoritate judizialen menpe gelditzen dira; horregatik, horiek ezartzeko aukera izango balute, baliteke kasu askotan epaileek behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa beharrezko ez ikustea.

Erreforma bat aipatu dugu, baina, behin-behineko espetxealdiaren aplikazioa murrizteko, zigor prozesuaz gain, aldatu beharreko beste puntu bat datorkit burua: Zigor Kodeak aurreikusten dituen zigorren zenbatekoa edo larritasuna. Ikusi dugunez, bi urte edo gehiagoko espetxe zigorra aurreikusten duen delitua egozten zaionean ezarri dakioke akusatuari behin-behineko espetxealdia. Delitu bat burutzeagatik Zigor Kodeak aurreikusitako zigorrak jaitsiko balira, litekeena da kautela neurrietan gogorrena dena murriztea.

Amaitzeko, gai honetan sakontzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu nahiko nuke. Aztergai izan dugun instituzioa ez da espetxe zigorra, baina azken honen antzera, efektu negatiboak eragin ditzake; hala nola, estigmatizazio negatiboa, sufrimendu psikologikoa... beraz, pertsona bat halako egoera batean jarri aurretik, zein beste aukera dauden ikusi beharko litzateke, kontuan izanik pertsona hori legearen begietan oraindik errugabea dela.

## VI. BIBLIOGRAFIA

ALONSO FERNÁNDEZ, J.A, 2017. *Pasado Y Presente De Los Fines De La Prisión Provisional En España*. Doktoretza Tesia. Universitat Internacional de Catalunya.

ALONSO FERNÁNDEZ, J.A, 2019. *Tribunal Constitucional Y Fines De La Prisión Provisional*. Bartzelona: Bosch.

BARONA VILAR, S., 1988. *Prisión Provisional Y Medidas Alternativas*. Bartzelona: Bosch.

BUENO ARMIJO , A. eta RODRIGUEZ PORTUGUÉS, M., 2007. El fumus boni iuris como criterio contrario al solicitante de las medidas cautelares. ¿Un traidor entre los aliados? Comentarios a los autos del TSJ de Cataluña, de 16 y 17 de junio de 2006, sobre suspensión cautelarísima del referéndum sobre la reforma del Estatuto de Autonomía de Cataluña. *Revista de administración pública* [online] (172.zenbakia). Eskuragarri hemen: <<http://file:///C:/Users/Usuario/AppData/Local/Temp/Dialnet-ElFumusBonilurisComoCriterioContrarioAlSolicitante-2358938.pdf> >.

CAPE, E. and SMITH, T., 2016. *The Practice Of Pre-Trial Detention In England And Wales: Research Report* [online]. Bristol, United Kingdom: Centre for Legal Reseach, University of the West of England. Eskuragarri hemen: <<http://file:///C:/Users/Usuario/AppData/Local/Temp/Country-Report-England-and-Wales-MASTER-Final-PRINT1.pdf> >.

DE LA ROSA CORTINA, J.M., 2015. *Las Medidas Cautelares Personales En El Proceso Penal*. 1.Edizioa. Hospitalet de Llobregat: Bosch.

FERNÁNDEZ ENTRALGO, J., 1989. El compromiso del juez penal con la tutela de los derechos y libertades fundamentales. *Revista del Poder Judicial*, (Nº extra 10).

GASCÓN INCHAUSTI, F., 2011. Características de los grandes sistemas de investigación penal del derecho comparado. *Cuadernos Digitales de Formación, Instrucción penal en el Derecho comparado* [online]. Eskuragarri hemen: <[https://eprints.ucm.es/26599/1/2011\\_Caracter%C3%ADsticas%20de%20los](https://eprints.ucm.es/26599/1/2011_Caracter%C3%ADsticas%20de%20los) >

[%20grandes%20sistemas%20de%20investigaci%C3%B3n%20penal%20en%20Derecho%20Comparado.pdf](#) >.

GIMENO SENDRA, V., 2004. *Derecho Procesal Penal*. Madrid: Colex.

GONZALEZ SÁNCHEZ, I., 2009. Abolicionismo, cárceles e inseguridad ciudadana. Crítica, alternativas y tendencia. *Revista de derecho penal y criminología*, [online] (1.zenbakia), 291-315. orrialdeak. Eskuragarri hemen: <<http://e-spacio.uned.es/fez/eserv.php?pid=bibliuned:DerechoPenalyCriminologia-2009-1-30330&dsID=PDF> >.

GUERRA PÉREZ, C., 2010. *La Decisión Judicial De La Prisión Preventiva*. Valentzia: Tirant lo Blanch.

MANZANARES SAMANIEGO, J., 2011. La responsabilidad patrimonial por prisión provisional. *Diario La Ley*, (7761.zenbakia).

MIGUEL BARRIO, R., 2020. Estudio de la prisión provisional a nivel teórico y jurisprudencial a tenor del caso de Sandro Rosell. *Revista General de Derecho Procesal* 50.

MONTERO AROCA, J., GÓMEZ COLOMER, J.L., eta BARONA VILLAR, S., 2017. *Derecho Jurisdiccional I, Parte General*. 25.edizioa. Valentzia: Tirant lo Blanch.

MORILLAS CUEVA, L., 2016. Reflexiones sobre la prisión preventiva. *Anales de Derecho*. Universidad de Murcia [online] (Vol.34, 1.zenbakia). Eskuragarri hemen: <<https://revistas.um.es/analesderecho/article/view/252111/193081> >.

PASTOR MOTTA, L., 2003. La reforma de la prisión provisional. *Estudios Jurídicos. Ministerio Fiscal*, [online] (4.zenbakia). Eskuragarri hemen: <[http://www.cej-mjusticia.es/cej\\_dode/flash/ebook/assets/img/documentosjuridicosdogma20100323132322016/documentosjuridicosdogma20100323132322016.pdf](http://www.cej-mjusticia.es/cej_dode/flash/ebook/assets/img/documentosjuridicosdogma20100323132322016/documentosjuridicosdogma20100323132322016.pdf) >.

SERRANO BUTRAGUEÑO, I., 1996. *Comentarios Sistemáticos A La Ley Del Jurado Y A La Reforma De La Prisión Preventiva*. Peligros, Granada: Comares.

SERRANO MAILLÓ, I., 2006. El derecho a la libertad y la prisión provisional. *Anuario de la Escuela Práctica Jurídica*, Universidad Complutense de Madrid, [online] (1.zenbakia). Eskuragarri hemen: <[https://www2.uned.es/escuela-practica-juridica/Nueva\\_carpeta/AEPJ%201%20Isabel%20Serrano.pdf](https://www2.uned.es/escuela-practica-juridica/Nueva_carpeta/AEPJ%201%20Isabel%20Serrano.pdf)>.

## **BESTE ITURRI BATZUK**

Asociación Pro Derechos Humanos de España, 2015. *La Práctica De La Prisión Provisional En España. Informe De Investigación*. [online] Fair Trials International. Eskuragarri hemen: <[https://www.fairtrials.org/wp-content/uploads/INFORME\\_LA-PRACTICA-DE-LA-PRISION-PROVISIONAL.pdf](https://www.fairtrials.org/wp-content/uploads/INFORME_LA-PRACTICA-DE-LA-PRISION-PROVISIONAL.pdf)>.

Council Of Europe Annual Penal Statistics, 2019. *Prision Populations SPACE I-2019*. [online] Eskuragarri hemen: <[http://wp.unil.ch/space/files/2020/04/200405\\_FinalReport\\_SPACE\\_I\\_2019.pdf](http://wp.unil.ch/space/files/2020/04/200405_FinalReport_SPACE_I_2019.pdf)>.

Eurostat. 2020. *Population And Population Change Statistics - Statistics Explained*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://ec.europa.eu/eurostat/web/population-demography-migration-projections/data>>.

Fair Trials International, 2016. *A Measure Of Last Resort? The Practice Of Pre-Trial Detention Decision Making In The EU*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://www.fairtrials.org/wp-content/uploads/A-Measure-of-Last-Resort-Full-Version.pdf>> .

Fair Trials International, 2013. *Pre-Trial Detention In France*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://www.fairtrials.org/country/france>>.

Government of United Kingdom. 2019. *Prison Population Figures: 2019*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://www.gov.uk/government/statistics/prison-population-figures-2019>> .

Institut National de la statistique et des études économiques. 2020. *Population Totale Par Sexe Et Âge Au 1Er Janvier 2020, France – Bilan Démographique 2019* | Insee.

[online] Eskuragarri hemen: <<https://www.insee.fr/fr/statistiques/1892086?sommaire=1912926>>.

Office For National Statistics. 2018. *Estimates Of The Population For The UK, England And Wales, Scotland And Northern Ireland - Office For National Statistics*. [online] Eskuragarri:<<https://www.ons.gov.uk/peoplepopulationandcommunity/populationandmigration/populationestimates/datasets/populationestimatesforukenglandandwalesscotlandandnorthernireland>>.

Secretaría General de Instituciones Penitenciarias. 2020. *Ministerio Del Interior, Instituciones Penitenciarias, Estadística Penitenciaria*. [online] Eskuragarri hemen: <<http://www.institucionpenitenciaria.es/web/portal/administracionPenitenciaria/estadisticas.html>>.

World Prison Brief. 2020. *World Prison Brief Data | World Prison Brief*. [online] Eskuragarri hemen: <<https://prisonstudies.org/world-prison-brief-data>>.